



Mikel TABERNA
lehen eleberria
'Alkasoroko Benta'
argitaratu du
→ 3

Moda gehigarria

Udaberri-uda → 11-18

LESAKA → 20

Nafarroako Soinularien
Eguna igandean

DONEZTEBE → 26

Bidasoko Pedalak bizikleta
ibilbidea aurkeztu dute

URROZ → 31

Leurtzara sartzeko 2 euro
kobratzen hasi dira

ZUGARRAMURDI → 40

Sorginaren Eguna ez da
aurtengoan ospatuko



Hamaika taldek hasi dute Baztan-Errekako XXXIV. Laxoa Txapelketa

Iaz baino hiru talde guttiagok eman dute aurten izena Baztan-Errekako Laxoa Txapelketan: Doneztebek 5 talde plazaratu ditu (iaz 7), Iruritik 3, Arraiozek 2 (iaz 3) eta Oizek talde bakarra. Finala abuztuaren 3an jokatuko da Donezteben. → 45

MENDI-ERREKETA KONTROLATUAK | Abantaila ugari duen sistema

Eguraldiak ez du
lagundu eta iaz baino
sasi gutiago erre da aurten

Apiril hondarrean bukatuko da errequeta kontrolatuen kanpaina

Sasiak erretzen bakarka eta inolako kontrolik gabe hasi beharrean, hobe da taldean antolatu eta beharrezko baimenekin saiatzea. Sistema honekin baserritarrak, basozainak, suhiltzaileak eta EPRIFekoak elkar hartuta aritzen dira larreak erretzen, arriskuak eta kalteak minimora murriztuz.

ERREPORTAJEA → 4-5



BAIGORRIN

Nafarroaren Eguna

Apirilaren 28an ospatuko da Baigorriin Basaizea Kultur Elkarteak antolatutako Nafarroaren Eguna.

EUSKAL LORE JOKOAK

Iruritan apirilaren 21ean

Hego Euskal Herriko lehen Lore Jokoak Elizondon ospatu ziren 1879an eta hura gogoan hartuta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte igandera-ko Iruritan. → 36

ZOKKETAK → 2



Txartela egiteko
deitu 948 63 54 58ra

Bittiriako erakusketaren berririkieragatik ESKAINTZA BEREZIAK



SUKALDEAK | DEKORAZIO PROIEKTUAK | EGONGELAK | LOGELAK | SOFAK | ARMAIRU ENPOTRATUAK | ILUMINAZIOA | OSAGARRIAK



www.mueblesordoki.com

Plaza Zaharra, 27 | Erakusketa: Bittiria | LESAKA
T. 948 637 780 | e-posta: info@mueblesordoki.com



EUSKARA BORTZIRIETAN, GOGOETA PROZESUA

APIRILAREN 20AN
MAITZAREN 4AN
TOKI ONAN, BERAN
10:00ETAN



+ erabili
**ZAINDU
MAITE
DUZUN
HORI**
+ indartu
+ garatu





ARTXIBOKO ARGAZKIA

Erreketak egin ahal izateko gutxienez herriko bost nekazarik hurbildu behar dute erreketaren egunean.

GIZARTEA → BASO ERREKETAK

Talde lanean piztutako suak, herrietako larreak hobetzeko helburuarekin

Arrisku maila nabarmen gutxitzeaz gain arduren afera ere konpontzen da sistema honekin

Sasiei suarekin bakarka aurre egin beharrean taldean egitea proposatzen dute. Basozain, suhiltzaile eta EPRI Fekoekin batera sute kontrola-

tuak eginez. Beren esperientzia eta baliabide teknikoak jartzen dituzte herritarren eskura mendiak garbi mantentzeko helburuarekin.

E. IRAOLA |

Sua belaunetik beheiti izatea hobe dela erran ohi da, baina tentuz erabiltzen bada, helburu jakin batzuk lortzeko hagitik baliagarria izan liteke. Mendeetan

zehir sasi jandako larreak garbitu eta bizi berritzeko bitartekoa izan da sua eta hala izaten jarraitzen du. Kontu handiz jokatu beharra dago ordea, txinparta bat nahikoa baita ihes egi-

teko; sasiak erretzen hasita erabateko hondamena sortzeko.

Halakorik gertatzean sua piztu zuenaren ardura izaten zen duela gutxi arte. Nekazari eta abeltzainak, basozai-

in, udal, suhiltzaile eta EPRIF taldekoekin elkarlanean hasi diren arte. Eskualdeko zenbait herritan urteak daramatzate elkarrekin lanean. Bost edo hiru urterako plangintzak egiten dituzte eta pixkanaka herri lurak garbitzen joaten dira. Baztanen esaterako, suteena arazo larria izatetik, eredu izatera iritsi da. Pauso hauek segiz, Sunbillan ere sute kontrolatuak egiteko elkarlana bultzatu nahian dabilta. Batekoek eta bestekoek aipatzen dute «suteen afera kontrolpean mantentzeko irtebiderik egokiena» dela talde-lan hau.

Azaroan hasten dira herritarren eskariak biltzen. Erre nahi duten larrera zein den zehaztu eta erreketarako arrazoiak azaltzen dituzte. Teknikariek eskari guztiak zerrenda batean jartzen dituzte arrisku gehien dutenetik gutxien

dutenera. «Hektarea kopurua, landaketa edo etxebizitzak hurbil dauden edo beharra zein den» begiratzen dutela dio Aitor Bazterrikak, Baztango Udaleko basozainak.

EGURALDIAREN MENPE

Nafarroako Gobernua baimena ematen badu, prozedura martxan jartzen da. Taldea biltzeari ekiten zaio eta eguraldiak ere zeresan handia izanen du. Arrisku gehieneko erreketak egiteko «haize gutxi ibi-

DATUA

400

HEKTAREA

erre zituzten pasa den urtean Baztanen, aurten zifra horietara iristea zail izanen da eguraldiak ez duelako lagundu.

li eta hezetan mailak ere baxua izan behar du» Bazterrikak azaldu digunez. Horregatik, erreketak egiten den edo ez bezperan zehazten dute. Eguraldi ona lutzerako ematen badute, planifikazioa ere luzeagoa egiten da. Itxuraz, erreketak egiteko eguraldiak laguntzen duela di-rudienean ere, suhiltzaileek izaten dute azken hitza «egunean bertan, faktore guztiak kontuan eduki eta erreketekin aitzinera jo ahal litekeen erabakitzea beraien esku dago». Gainera, behin erretzen hasitakoan «haizea zuhaitzen goiko alde astintzen hasten bada, bertan behera geratuko da erreketak eta sua itzaliko da».

ERREKETAREN MOMENTUA

Goizeko bederatzia aldera hasten dira erreketekin eta 17:00etan bukatuta egon beharko du. EPRIFeko ardura-dunek kontrolatzen dute egoera, aginduak irratian baten bidez emanez. Erreketak ongi antolatuta egiten direla azaldu digu Bazterrikak «bi taldetan banatzen gara. Sua alde batean ha-

si eta inguratuz joaten gara bi taldeak, bukatzeko denok berriro elkartuz. EPRIFekoak erraten digu aldi oro, zein taldek jarraitu behar duen su ematen, zein taldek itxaron behar duen». Jendearen esperientziaz baliatzen dira «batetik esperientzia handia duen taldea da; badakite nola egin suak, nola gauzatu erreketak, nondik hasi eta bertetik suhiltzaileak, beraien prestakuntza eta medioak ere gure eskura jartzen dituztelako». Arrisku maila asko jeisten da «arazoen aurrean ematen den erantzuna azkarrago iritsiko litzateke, talde baten erantzuten duelako. Nekazari batek, berak bakarrik, pala batekin ezingo luke su hori geldiarazi edo aunitzez gehiago gostako litzaioteko». Goitik behegi egiten dituzte erreketak «denbora gehiago behar den arren, emaitzak hobeak direlako, sei bat urtez irauten dute larreak garbi».

AURTENGO KANPAINA

Apiril hondarrean akituko da aurtengo kanpaina eta iaz lortutako kopuruak urrun gelditu-

KANPAINA

«Azaroan hasi eta apirila bitarte irauten du kanpainak, tarte horretan eguraldiak laguntzen duen egun guztietan erreketak egiten saiatzen gara».

ERREKETA NORABIDEA

«Goitik behegi egiten ditugu erreketak, denbora gehiago behar den arren emaitzak hobeak direlako».

Aitor BAZTERRIKA

Baztango udaleko basozaina

ko omen dira «euria eta elurra izan ditugu etengabe eta ezin izan dugu nahi genuen lana bete» erran digu Baztango basozainak. Hala ere, «kontent» dago herritarrek pixkanaka baso erreketen inguruan kontzientzia berri bat hartzen ari direla nabari duelako «sistema honen balioaz ohartzen dira eta behin hasten direnek errepikatu egiten dute. Gehienbat ardura aldetik eskertzen dute, zama handi bat kentzen zaielako gainetik».

BASO ERREKETA EGITEKO PAUSOAK

Zein pauso eman behar dira sute kontrolatu bat egiteko?

1. Urte hasieran **eskaerak aurkezteko** epea zabaltzen da (basozainei esan edo udaletxean).
2. **Zerrenda** bat osatzen da jasotako eskariekin. Sutearen arrisku maila, erre nahi den basoaren kokapena (landaketak edo etxebizitzak arriskuan dauden ikusiz), beharra.... hartzen dira kontuan eta erreketak **arrisksuenetik arrisku tikienera** sailkatzen dira.
3. **Nafarroako Gobernuari eskaria** egiten zaio.
4. Baimena jasotakoan erreketak egiten hasten dira, apiril hondarrean kanpaina amaitu arte.

Erreketak egunean bete beharreko gutxieneko baldintzak

1. Eguraldi ona beharrezkoa da: **hezetasuna** eta **haizea** hartzen dira kontuan.
2. Erreketetan guttienez **bortz nekazari** egon behar dute, **udaletxetik batek edo bik, EPRIFekoak** erreketaren arabera (lan handiarekin gehiago) eta **lauzabortz suhiltzaile**.



SUNBILLAN LEHENENGO PAUSOAK EMATEN ARI DIRA

Larre erreketak egiteko plangintza indartu nahi dute

Larreak garbitzeko bitartekoa izan da sua betidanik Sunbillan ere. Garai batean baserritar bakoitzak, bere kabuz egiten zituen erreketak, gerta zitekeen edozein ezbeharren

ardura beraien gain eroriz. Arduren afera nolabait bideratzeko asmotan, duela urte batzuk baserritar talde bat gaia mugitzen hasi zen zer egin zitekeen pentsatzeko. Arkaitz

Vicentek, Sunbillako artzainak, azaldu digunez «azken urtean udalak bultzada eman dio proiektuari eta herritarrek gogo handirekin daudela nabari da, plangintza bat osatu dugu, mendia erre eta errepasatzeko datozen hiru urteetan». Heldu den urteari begira «dinamika bat antolatu behar» dutela dio «jendearen eskariak bideratuko dituen pertsona bat beharrezkoa baita».

Orain arte erreketak egiten zirenean eskatzaileek bere gain hartzen zuten su horren ardura. Vicentek errandakoaren

arabera, «sistema berriarekin, EPRIFekoek antolatzen dute prozesua eta haien aginduak betetzen baditugu, suak ihes egin edo ezbeharren bat gertatuko balitz gertatutakoaren erantzulea EPRIF izanen litzateke. Horrek lasaitasuna ematen du».

Oraingo, «harrera ona» izan du proposamenak eta «jende aunitz» bertaratu da bileretara. «Gogotsu gaude irtenbiderik hoberena dela uste dugulako. Mendiak txukun garbitzea gure ardura da eta sistema hau indartu beharra dugu».



ARGAZKIA: EPRIF
Plangintza zehazteko bilerak egin dituzte herritarrek EPRIF elkartekoekin.



Nire txanda
Ruben GARATE

Aitatxi eta amatxi sailduak

zenburua irakurri hutsarekin ia denok jakinen duzue zeri buruz ari naizen solasean. Ez duenak ulertu zortea izan dezake eta goza dezala edo bertzela pena sentitu, ez duelako halakorik hurbilean izan. Aste Sainduko oporraldian santu eta martirien inguruko pelikulek ez dute hutsik egin eta hauek ikusita, pentsatzen hasi naiz santu titulua merezi duten aunitz ditugula inguruan. Gure behar guztiak asetzeko gai diren aitatxi eta amatxiez ari naiz, gure ongizatea beraienaren aitzinetik jartzen duten horietaz. Merituak ez zaizkie falta saildu izendatzeko. Aunitz dira bilobak zaintzeko ardura beregain hartu dutenak, lan baldintzak gogortu diren honetan. Eskola atarian ikusi ditzakegu haurren bila joanda edo oporretan umezain ibiliz. Langabezian dauden seme-alabei laguntza ekonomiko ematen dietenak ere badira. Santu izendatzea ez dago gure esku baina, ez zaizkigu arrazoiak falta muxutruk eskaintzen diguten laguntzagatik gure esker ona adierazteko.

«Merituak ez zaizkie falta saildu izendatzeko»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Denak al gara terroristak?

Ettegabetzen kontrako protestak gustatzen ez zaizkigula? ETA inguruko jendeak ekintza berdintsuak egiten dituela erran. Erreformen aixturra salatzen dugula? Sasiterroristen estrategia. CANeko afera, dieta bikoitzak eta gainerakoak ixilpetik argitara ateratzen ditugula? Ezker abertzalearen munduko taldearen gezurrak. Semeak bertze haur baten trizikloa irauli duela? Kale borroka!

Nabarmentzekoak



Joxe ETXEBERRIA III
Sagardoaren Txapelketa



Xabier SILVEIRA
Nafarroan zazpigarren txapela



Cristina ARBUÉS
Bidasoako Pedalak

Otsaileko eta martxoko erremontelari onena izendatu ondotik, apirilaren 6an Sagardoaren txapelketa irabazi zuen Matxin III. arekin batera. Jaun eta jabe izan zen finalean doneztebarra.

Desenpatearen beharrik gabe, martxoaren 23an Anaitasunan jokaturako finalean ongi nagusitu zen bertso-lari lesakarra eta zazpigarren aldiz txapela jantzi zuen.

Bidasoako Pedalak, Donezteben hasi eta bukatuko den bizikletendako 190 kilometroko ibilbidea aurkeztu dute. Turismoa eta kirola uztartzeko bertze aukera bat eskainiko du.

Atzera begira → 2003.04.24 / TTIPI-TTAPA 348 zbk.



Hiru baztandar Nafarroako emakumeen errugbi selekzioan

«Kirol zakarra iduri du errugbiak, baina futbolean aisa lesio gehiago gertatzen dira». Honela aipatu ziguten duela hamar urte Nafarroako selekzioan parte hartu zuten Agurtzane Obregozo, Begoña Iriarte eta Maria Mendiburu errugbilari baztandarrek. Lekarozen bi partida jokatu zituen Nafarroako selekzioak. Agurtzane zen hiruetan beteranoena, 23 urterekin eta dagoeneko Espainiako selekzioan ere debuta egin zuen. Begoñak eta Mariak hogeina urte zituzten. «Errugbian ez da bertze kiroletan izaten ahal den kompetibitatea. Talde barnean guztiak dira garrantzitsuak, denen koordinaketa behar delakoz» zioten.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredaktore burua Gurutze Pikabea Erredakzioa Eneitz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola Berriemaileak Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itzaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Martin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia
Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria40€	Europa59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka34€
Ipar Euskal Herria59,50€	Amerika eta Australia124€	Leitza17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Bortziritako Euskara
Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Elizak erortzen utzi?

Pello APEZETXEA

Azken 40-50 urteetako aldaketa nabarmenen artean bat, erlijioarena da, dudarik gabe. Eta aldaketa horien arteko gauza nabariena, behar bada, elizkizunak uzten joatea izan da, eta ondorioz elizak ia hutsik gelditzea, hiletak eta urteko besta egun bereziak ez direnetan.

Gertaera honi aunitz ikuspuntutik begiratzen ahal zaio. Munduko egoera aldatzen joan da, eta beti doa aldatzen. Nahiko ilun dago anitzentzat, zein den egungo kristau mezua, gaur egungo arazoei eta galdemoduei argia eskaintzen ahal diena; egin-kizun horretan lan berezia egin dezaketen apaizen kopurua larri ttikitu da; ezin atzendu emaztekiaren nortasuna ez ezagutzea eta berari dagozkion eskubideak elizan ez errespetatzea, etab.

Egoera ekonomikoak honetan ere zailtasunak ekarri ditu, elizara gero eta gutiago hurbiltzearen ondorioz. Gure tenplu gehienak aspaldikoak dira, ederrak eta balio historiko-artistikoaz hornituak, gure herrietako erai-kuntza balioetsuenak barrendik eta kanpotik; eta horiek zaintzeko lana eta dirua eskatzen du.

Baina, elizatik urruntzen den jende gero eta gehiagok, tenpluekin zerikusirik ez balu bezala jokatzeko du. Erlijioak, ordea, kultura-ekin ere badu harremana, eta erlijiotik urruntzearekin batera alderdi kultural horren kontzientzia ere galtzen ari da. Erraterako, tenpluen balioa ez da bakarrik kristauon elizkizunetarako. Aunitzetan herrian den balio arkitektoniko, historiko eta artistiko handiena denez gero, bera gertatzen da ikusgarriena, bai bertakoentzat, bai kanpotik heldu direnentzat, eta iduri du herritar guztiak beharko luketela tenplu hori zaintzen saiatu. Eta gauza bera XIII. mendeko musulmanen mezkita eder bat balego ere, nahiz eta gu ez musulmanak izan.

Hain zuzen, oartzeko lagungarri izan daitekeena: Donostiako Udal Batzordeak bertako Patrimoniao zaintzeko erabakia hartu du, aitzineko egunetan, kazetan ikusi dudanez. Mila etxe eta gehiago babestuko ditu, hainbat tenplu haien artean.

«Aunitzetan herrian den balio arkitektoniko, historiko eta artistiko handiena denez gero, bera gertatzen da ikusgarriena, bai bertakoentzat, bai kanpotik heldu direnentzat, eta iduri du herritar guztiak beharko luketela tenplu hori zaintzen saiatu. Eta gauza bera XIII. mendeko musulmanen mezkita eder bat balego ere, nahiz eta gu ez musulmanak izan»

Urteak pasan denontzat

Joseba URROTZ

Ematen du denori pasatzen zaigula gauza bera: ohartu gabe 'zahartzen' ari garela konturatzeko gara eta maiz aipatzen dugu hori lagunarteko erausietan. Urte txarrak izan ez direnaren seinale, erran genezake. Edo ez beti...

Seguraski gehienok, adinarekin batera, poliki-poliki biziari buelta hartzen ikasten dugu, batzuk errazago edo goizago, eta bertze batzuk zailago eta beranduago. Haurtzaroa garai polita dela erraten dute gehienek: kezkarik ez, jostaketak, lagunak, etab. Gutti batzuentzat ordea (nik hala uste dut, akaso uste baino gehiago izan ginen) ez zen hain erraza eta zoriontsua izan.

Gaur egun ematen du haurrak babestuak eta ongi zainduak daudela, etxean nola eskolan. Baina uste dut denboran zenbat eta atzerago egin, orduan eta garai zailagoak zirela ikus dezakegula.

Zaharragoak kontatzen dituztenak entzun eta argazki zaharrak ikusi bertzerik ez dago umeen beldurrak eta opresioak ikusteko. Ikasgelako arauak alde bategatik, eta ikaskideen artekoak bertzetik.

Batzuk ahulak izan ginen, lagun guttikoak, arraroak futbolearen edo pilotan jokatzeko ez genezake; liburuak irakurtzeko genituelako, akaso filosofoak... Eta horrek burla eta adar jotzea merezi zuen; kolpeak, gure gauzak gordetuz zirikatatu, etab. Nozitu genuenok, korapiloak, negarrak, etsipena... Bizia horrela omen da, gogorra...

Orain *bullying* deitzen diote. Nik euskaraz astapitokeria ere deituko nioke. Oihaneko legea zen alegia: indartsuak ahula zapaltzen du beti. Ezberdintasuna ordea, piztiak jateko menperatzen dutela urkoa, gizakiok berriz, geuron ankerkeriei aterabide emateko, bertzeen sufrimenduarekin gozatzeko aunitzetan.

Baina erraten den bezala, denborak gauzak bere lekuan paratzen omen ditu, eta gaur egun 30-40 urteren bueltan, ahulak eta guttiengo ginen batzuk zerbait ikasi dugu, eta zulotik ateratzea lortu.

Tikiak ginenean gure borroak izan zineten haietako aunitzek, gaur egun ez duzue guk baino irrifar zabalagorik aurpegian; zuek ere nozitu dituzue biziaren zailtasun edo noraezak. Soildu eta gizen du zarete; errutinaren menpeko eta batzuetan aspertuak ere ematen duzue, bertze edozein bezala. Nik behinik behin, orduan momentu txarrak pasatu banituen ere zuei esker, orain poza nabaritzen dut ikasi dudanez, behar bada, zuek ikasi ez dituzuen hainbat gauza ere bai.

Oroitzen denak jakinen du zertaz ari naizen.

«Orain *bullying* deitzen diote. Nik euskaraz astopitokeria ere deituko nioke. Oihaneko legea zen»

Irakurleak mintzo

Milesker mus txapelketan aritu diren eta lagundu duten guziei

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA

Xaloa Telebista, Xorroxin Irratia eta Ttipi-Ttapa hamabostekaria, eskualdeko komunikabideen izenean, txapelketan parte hartu duten guziei eta herriz herriko txapelketak jokatu ahal izateko lekua utzi duten

elkarte eta ostatuei eskerrak eman, bereaien laguntzarik gabe ezinezkoa izanen baitzen txapelketa hau antolatzea. Eskerrak bereziki, Sunbillako Ulibeltzak elkarteari, bigarren urtez segidan finalerako aterpea eman baitigu, baita Joxelu Retegiri ere, garaikurrak emateagatik.

Zuen laguntza ekonomikoari eta babesari esker, gure egitasmoetan aitzinera egiten laguntzeko xoxa ez ezik, animoa ere bildu dugu. Milesker!

**Bota bertsoa**

Maialen IANTZI (Baztango bertso eskola) • Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Nafarroaren Eguna Baigorriin

Nafarroaren egunan dugu, ispilu gure iragana
Berrero elkartuz, mugak basati,
hautsi nahi duen harremana
Atzean dago herritar denen
ilusioa ta lana
Bi-estaturik sortuko zama
Atzentzeko hartu-eman
Auserki jaki ta-edana
Sustrai berberak ditugu denek,
Nafarroa da gure ama
Mugak gaidituz, batu ditzagun
izena eta izana.

Hasi gaitezen, bada, besta honi
begietara begira
Bere umiltasun, herri giroak,
ematen dio distira
Xoko guztietan, sortu daiteke
sekulako ikusmira
Herri kirol, sokatira
Dantza arin, kalejira
Herri batuen perspektiba
Denek pixka bat lagunduz gero,
gauzak errexago dira
apirileko 28en
Denak gazin Baigorriira!!

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net



Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**



Tel.: **948 63 54 58**



Faxa: **948 63 54 57**

PATXI VILARI
Omenaldia

Oparia:
KANTU ZAHARREN LIBURUA

Kantu zahar afaria

**MENDIKO JATETXEAN
IBARDIN**
**Apirilak 26, ostirala
20:30**

Bertsolariak:
SUSTRAI COLINA | AITOR MENDILUZE

Akordeollaria:
FRANTZISKO SANTXOTENA

Abeslariak: ALBERTO ZUNZARREN
AITOR IBARRA eta PATXI MARIZKURRENA

mENDIKO

lehenengo urtebetetzea

GARRAIO AUKERA
Izen-ematea: 948 630 301 / 670 365 011

Antolatzailea:
Angel Marizkurrena

Prentsatik bildutakoak



«[Facebook-ek] Olerkia laguntzen du. Olerkiak ezin du berze literatur generoe-kin konpetitu, ekonomikoki errentagarria ez delako, baina beti dago edertasunerako nahia eta sare sozia- lek hori errazten dute. Hori bai, argialetxe zahar heroikoek lanean segitzen dute eta hori goraiatzeko, miresgarria eta emozionantea ere bada neurri batean».

«Garai hauetara eta edozeinetara molda- tzeo gai naizela daki- denez, sentitzen dut txapel honek hara eta hona bertsotan ibiltze- ko leku bat ekarriko didala. Silveira honek badauka zer eskaini, horregatik pozten nau txapelak. Politikoki garai berriak dira, baina sozialki inoiz aldatu ez den garai honi bertso bat baino gehiago botatzeko zeresana badut».

Fco Javier IRAZOKI
Lesakako olerkaria
D.NOTICIAS 2013.03.21

Xabier SILVEIRA
Lesakako bertsolaria
GARA, 2013.0325

11 galdera labur

Lesakan jaiotako sunbildarra edo Sunbillan apez izan den lesakarra?

Orain hiru urte zerbait erostera Iru- nera joan eta dendari batek galde- tu zidan Lesakakoa ote nintzen. Zergatik? *Zure mintzaeraren doi- nuagatik*. Eta nik: Nola daiteke 58 urte Sunbillan bizi eta gero? Baina amaren aita eta ama sunbildarrak ziren, naiz nere ama Uruguayen jai.

San Fermin edo San Tiburtzio?

Biek.

Sunbillako bestetan txupinazoa ere bota duzu...Espero zenuen?

Bota nuen, baina ez nuen espero.

Meza ospakizunen artean, zein da gehien gustatzen zaizuna?

Olaecheak 4 abotsetara armoniza- tua erriro orientaleko *Alleluia*, eta modu berezian Goikoetxearen *Ky- rie* eta *Gloria* 3 gizonen abotsetara.

Meza, euskaraz, gaztelera edo latinez?

Euskaraz egin behar denean euske- raz, erdaraz egin behar bada erda- raz, eta latinez ez du sentidurik orain.

Izan duzu inoiz Sunbillako inaute- rietan disfrazatzeko gogorik?

Karrozak ateratzeko urte aunitzez ahalegindu nintzen. Hasi zirela- rik, orduan isildu nintzen. Disfra- tzatzeko asmorik ez dut izan.

Denak. Hemengo margolari batek erraten zuen bezala, 10 metrotik 10 metrora margotzeko paisaiak ditu- zu. Adibidez Joangeneko iturritik herrira begiratuta oso polita da.

Euskalzaindiari liburu batzuk eman dizkiozu...Nola ikusten duzu eus- kararen egoera Sunbillan?

Ona, baina zerbait egin behar li- tzake haurren guraso erdaldunek euskara ikasteko.

Txistu irakaslea ere izan zara....Mu- sika tresnarik gogoena?

Txistua ongi jo ez gero instrumen- to *señorial* da.

Baita abesbatzako zuzendari ere... ahots ona dute sunbildarrek?

Horrelako herri txikian Sunbillako abesbatza oso ona da.

61 urtez Sunbillan apez... Zein da zure oroitzapenik politena?

50 urte egin nituelarik egin zidaten omenaldia. Egun hartan alargun bat etorri zitzaidan erratera *alargunduz gero, gaur arte ez*

naiz dan- tzatu.



Basilio SAROBE → Sunbillako apeza

elika
Dietetika... elikadura
Iñaki Andueza Larra
Iztoa, 6 behean - BERA - T. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

- Ahokulturaz dietetiko nutrizionala pertsonalizatua
- Gorputz konposizioaren analisiak: ura, muskuluak, gantzak ...
- Dietoterapia: hipertentsioa, hiperkolesterolemia, diabetesa, arazo digestiboak ...
- Kalorien eta glukosa azterketak.

Karsuk
Muebles de cocina
Meubles de cuisine
Sukaldeko altzarak
Karlos Pombar Sainz
C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoan, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
Timo/Fax: 948 630 018
Kantillonberri 12 - BERA

KULTURA

BERTSOLARITZA → NAFARROAKO TXAPELKETA

Xabier Silveirak txapela jantzi du zazpigarren aldiz

Julio Soto, Erika Lagoma eta Eneko Fernandezekin batera Euskal Herriko txapelketan ariko da

TTIPI-TTAPA

Xabier Silveira lesakarrak irabazi du Nafarroako Bertsolari Txapelketa. 1.500 bertsozale elkartu ziren martxoaren 23an Iruñeko Anaitasunako finalean eta giro ezin beroago jarri zuten saioaren hasiera-hasieratik. Zortzi finalistek maila handiko saioa eskaini zuten eta azkenean Xabier Silveira atera zen garaile 588 punturekin. Hogei puntuko aldea atera dio bigarren sailkatuari, Julio Sotori, hortaz ez zen buruz burukorik behar izan. Bittor Elizagoien bertsolari beteranoak jantzi zion txapela Txapel-dunari. Xabier Silveira-

ren zazpigarren txapela da aurtengoa.

Erika Lagoma eta Eneko Fernandez lesakarrak hirugarren eta laugarren sailkatu ziren. Eneko Fernandez izan da txapelketa honetako ezustekorik handiena, bere lehen parte hartzean (iaz Bardoak txapelketan plazaratu zen lehen aldiz eta txapeldun izan zen) finale-ra sartu ez ezik, ohorezko postua lortu baitu. Izan ere, lau bertsolari horiek lortu dute udazkenean jokatu den Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusirako txartela. Bosgarren postua Eneko Lazkoz-entzat izan zen (539,5 puntu), eta haren gibelatik Jon Barberena (526 puntu), Oskar Estanga (506,5 puntu) eta Aimar Karrika (480,5 puntu) sailkatu ziren.

1.500 lagunek lepo bete zuten Anaitasuna kiroldegia eta giro eder-rra izan zen. Nafarroako bertso eskoletako ordezkariak eman zizkieten sariak finalistei.



SAILKAPENA

ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Xabier Silveirak ezustekoa hartu zuen txapeldun zela jakinarazi zutenean. Bittor Elizagoienen eskutik jaso zuen bere zazpigarren txapela bertsolari lesakarrak.

1. Xabier SILVEIRA (Lesaka)	588 puntu
2. Julio SOTO (Gorriti)	568 puntu
3. Erika LAGOMA	558 puntu
4. Eneko FERNANDEZ (Lesaka)	541,5 puntu
5. Eneko LAZKOZ (Etxarri Aranatz)	539,5 puntu
6. Jon BARBERENA	526 puntu
7. Oskar ESTANGA (Gaintza)	506,5 puntu
8. Aimar KARRIKA (Auritz)	480,5 puntu

Zientzietako arloetan gaizki zabilta?

Laguntza behar duzu?

Matematika, natur zientziak, fisika, kimika, teknologia... klaseak jaso nahi badituzu, nik lagunduko dizut!

Znbk. 679086368 (Gurutze Andueza)

CITROËN

SANSIÑENA TAILERRA

%5 eko
DESKONTUA
olio aldaketetan

ttipi txartela

Udaberri Udako 2013

moda gehigarria



Dendetan udaberriko haizea hasi da arnasten eta poliki-poliki denboraldi berri honek dakarrena hasiak gara ikusten.

Denboraldiko zeinurik adierazgarrienetako bat marrak izanen dira.

Finak, zabalak, bertikalak, horizontalak, kamisetatan, galtzetan, soinekoetan...

Folka izanen da beste joeretako bat. Kulturarekin zerikusia duenguztia, batez ere Latinoamerika gogora ekartzen diguna eramanen da. *Hippie* eta bohemio ukituarekin, gisa honetako estanpatuak nonahi ikusiko dira.

Safari joera ere boladan egonen da. Soinekoak, bermudagaltzak eta atorrak... berdeak, kakiak eta lur kolorekoak... gerriko marroiekin jantzita, ukitu maskulinoa emanez.

Denim oihala ere ezinbestekoa izanen da. Atorrak, kazadorak, soinekoak, galtza motzak, luzeak... Osagarrietan ere ikusiko dugu bake-roa.

IPINGI
ARRDPA eta OSAGARRIAK

Santiago 88
ELIZONDO
T. 948 580 939
info@pingi.es
www.pingi.es

UDABERRI-UDAKO KOLEKZIO BERRIA

kokette
Santiago, 22
ELIZONDO

Denboraldi berriko arropa eta osagarriak



Lulu

38tik 64ra bitarteko neurriak
Hondarribia kalea, 15 Atzeko aldetik
IRUN - Tel. 943 616 165



EMAKUMEZKOEN OINETAKOAK

Haize berri batekin dator udaberria

Hona hemen joera nagusiak



METALIKOAK Metal distiratsuak: urrea, zilarra, brontzea eta beruna. Argi-izpi efektua gailenduko da. Gauz erabiltzeko ikusgarriak.

ZINTZILIKARIOAK ETA OVERSIZE PULTSERAK litsek aire etniko eta tribala emanen diote eta pultserak haundiak izanen dira oraingoan.

TRANSPARENTZIAK Hanken zilueta erakustea modan dago. Inspirazio harrigarriekin eta material berrieekin diseinu sotilak sortuko dira denboraldi honetarako.

PLEXIGLASEZKO ETA METALEZKO TAKOIAK Bi joera nagusi daude, plexiglasezko takoi lodiak edo takoi fin metalikoak. Egunez edo gauz eramatekoak.

Uda honetan **plataformadun zapatak** ezin dira faltatu. Ibiltzeko erosoak dira eta altueran zentimetro batzuk irabaziko dituzu. Kolore eta estanpatu guztietan aurkituko dituzu eta horrela soineko, gona eta galtzekin erabiltzeko aukera izanen duzu.



HORIA: Edozein tonutan, oinetakoen firma guztiek aurkeztu dituzte kolore honetako oinetakoak. Egunez erabiliko dira kolore ukitu harrigarria emateko.



ESTANPATUAK animalietan inspiratuak edo geometrikoak: Estanpatu ausartak ere eramanen dira. Bi joera nagusi daude, geometrikoak (marrak, erroboak...) eta animalia estanpatu berrituak. Azken hau gazteagoek eramanen dute, dibertigarriagoa da.

SUPERGLADIADORAK: Sandalia eta bota arteko diseinua dute eta denboraldiko berrikuntza nagusia dira. Batzuk tira sinpleak dituzte, beste batzuk ikusgarriagoak dira bai eta beti ukitu sentsuala izanen dute.

GIZONEZKOEN MODA

Kolore urdina, marrak eta ausartenentzat estanpatuak

Aurten galtza luzeak ere motz eramanen dira, orkatila agerian utziz



Pasarela berrienak ikusiz, joera desberdinen artean tonu urdinak nabarmentzen dira.

Gauzez ateratzeko baldin bada, tonu ilunagoak eramanen dira, eta egunerako, aldiz, ator zuriarekin konbinatzea bilatuko da. Egunez urdin kolorea jaka eta oinetakoetan eramaten ahal da, udako *looka* lortuz.



Koadroak eta marrak ezin dira faltatu, armairuan beti eduki behar da estilo honetako jantziren bat. Jaka edo atorrekin konbinatuz ukitu formalagoa lortzen da. Eta kalleko estiloan murgildu nahi bada, kamiseta finekin eta belaunerainoko galtza motzekin jantziko dira.



Estanpatu zoro eta gazteagoak ere eramanen dira, kolore biziko nahasketak eginez.

Joera guztiek badute zerbait partekatzen dutena: denboraldi honetan, galtzak motz motzak eramanen direla. Zapata edo zapatilekin konbinatuta ere, beti orkatilaren gainetik jantziko dira.

Azken urteotan bezala, **larruzko kazadorak** aurten ere boladan egonen dira eta indartsu gainera. Izan ere, larruzko kazadorak edozein egoeratarako proposak dira.

TABERNA ZAHARRA

Gizon - Emakumeendako arropa-denda
Gortinak eta etxerako arropak

UDABERRI-UDAKO MODA

Merkatarian karkika, 11 - DONEZTEBE - Tel. 948 450 007

Gazteen moda prezio onean
ARROPA DENDA
Kosma

smash!

T. 948 450 464 • Nagusia, 2 • DONEZTEBE

MERCHE MODA NOVIOS

Giovani Valdi
Sandro Sellini
Caramelo gala

Serapio Mugika, 11
20302 IRUN
943 612 626

www.capelettimercheirun.com



BUSTIBULISTA

Bittiria, 36 • LESAKA • 948 638 004



ARRATE & TETIKA ZENTROA

3. URTEURRERA
MILESKER DENO!

Parrokia, 18 beheak | DONEZTEBE | 948 450 286



edr'igunea

Ainhoa Azpitox
Estetista

Laserra • Solariuma
Depilazioak • Makillajea
Aurpegiko tratamenduak
Gorputzeko tratamenduak
Opari baleak
Begien edertzea

INSTITUT ESTHEDERM

Eibarren, 47 beheak • LEIZA
1948 510 273 • edgunea@yahoo.es



Kris leapaundegia

Giltzaurdi, 14
ELIZONDO
948 580 025


ORRAZKERAK

Ile luzeak eta orrazkera sofistikatuak

Hona hemen denboraldi berri honetako orrazkera eta makillaje joerak



BABY DOLL: Trentzak eta haur itxurako *look*-ak itzuli dira aurten. Diadema edo koro formako trentzak eramanen dira, batzutan trentzak eta lotu gabeko ileak konbinatuz. Trentza arruntak edo ziri (espiga) modukoak izan daitezke. Orrazkera estilo hau laguntzeko, goi eta beheko betazalak ausarki makillatuko ditugu, masailak eta ezpainak arrosa kolorez pintatuz.



WET LOOKa: Ile-sustraietatik puntaraino ile busti eta engominatuaren *looka* sexia eta freskoa da. Ile-mototsetan, erdialdetik puntaraino gomina eman, ilea belarrien atzetik pasa eta aurpegira erortzen utzia. Tonu metalikoekin, berun-urдинekin edo moreerekin betazalak *smoked* moduan pintatu eta ezpainetan *nude* kolorea eman, distira pixka batekin.



GLAMOURa: Bolumen aunitz duten melena edo kalparrak, uhinekin, kizkurrik eta tirabuzoirik gabe. Urre koloreko begi-itzalekin margotu, zilar kolorearekin bertzela. *Liner*-arekin begirada sakondu. *Nude* koloreko ezpainetako distira piska batekin eman.



RETRO GLAMOURa: 20. hamarkadako *bob* estiloko melena edo kalpar erdia retroak, uhinekin eta gaineko aldean bolumena duten ile-bilduak. Garrantzitsuak dira *look* honetan *eye-liner* markatu eta definituak, betile postizoak eta ezpainetako gorri mate edo distiratsuak.



HIPPIE ROCKa: Uhin ukitua duten ile nahiak atzeko aldean. Begiak *khol* beltzarekin pintatu eta itzalak esmeralda edo urdin metalikoz. Ezpainetan kolorerik ez eman, *gloss* pixka bat eta lixto.




antxordoki
ILEAPAINDEGIA eta ESTETIKA

- Aurpegirako tratamenduak
- Ximurren betetzea
- Oxigenazioa
- Tratamenduak termoestimulazioaren bidez
- Zelulitis
- Tonifikazioa
- C bitamina
- ...
- Erreduktorea
- Sabelondoa
- Depilazio elektrikoa eta zerarekin
- Laser Diodo
- Solarium-a
- Ezkontza eta bestatako makillajea
- Pedikura
- Manikura

Albistur 39 LESAKA tel. 948 637 703

Konultatatu gure eskaintza bereziak



OYÁ

EDERTASUN ZENTROA


Legia, 45 - behea • **BERA**
T. **948 631 005** • M. 698 499 192 • 698 499 204

ORDUTEGIA:
Asteartetik ostiralera: 09:00-13:00 eta 16:00-20:00
Larunbatetan: 10:00-14:00

MANIKURA ETA PEDIKURA TRATAMENDUAK (gizon eta emakumeendako)

AURPEGIKO DEPILAZIOA
BEKAINEN DISEINUA
BETILEEN LUZAPENA (ILEZ-ILE)

BEKAIN ETA BETILEEN TRATAMENDU
IRAUNKORRA:
· KIXKURTZEA, TINDATZEA, LEUNTZEA



**ANDREGAI KLASIKOEN
MAKILLAJEA**



**ANDREGAI MODERNOEN
MAKILLAJEA**



**OSPAKIZUN ETA EZKONTZETARAKO
MAKILLAJEA**



**MANIKURA ETA PEDIKURA
TRADIZIONALA**



**ESMALTATU IRAUNKORRA: AZAZKAL
LANDUAK GEL EDO PORTZELANAREKIN**




HAURREN MODA

Fluoreszente koloreak nabarmenduko dira

Udaberri-uda honetan, haurren moda joera nagusien artean, navy estiloko marrak aurkituko dira, finak eta lodiak

Nesken kasuan, lore eta ttanttoekin egindako estanpatuak nabarmenduko dira eta osoko jantziak (pieza bakarrekoak) puri purian egonen dira. **Mutilentzat** berriz, galtza zuriak ator marradun edo koadrokariekin eta poloe-kin konbinatuta, berdea eta urdina nahasiz.



Joera aipagarrienen artean ator bakeroa aurkitu dugu, denboraldiko izarra izanen da. Nola konbinatu? Azpian kamiseta neutro edo estapantua jarriz.

Hori-limoi kolorea ere aunitz ikusi da eta dendetan kolore honetako jantzi eta osagarriak erruz aurkituko ditugu. Kontuan hartu beharreko beste joeretakoa bat fluoreszente kolorea izanen da, jantzi, osagarri eta oinetakoetan aplikatua.

mirentxu

0-16 neurriko umaien arropak
0-16 urteko neska mutiloentzako berebituak
Berebituak egindako arropak
Biboiak, baxurak, arropa, kolortuak,
galtzerdik, esportak, oinetakok

DESIGUAL MARKAREN ESKLUSIBA

KAZADORAK
19,95€

BETAURREKOAK

Aspaldiko *begilagun* klasikoak, pittin bat eguneratuak

Egun luze eta beroak datoz eta, horrelakoetan, eguzkitako betaurrekoak ezinbestekoak bihurtzen dira

Begiak babesteaz gain, gure *looka* osatzen dutebeturrekoek. Horregatik, arroparekin bezala, komeni da denboraldi bakoitzeko joerak ezagutzea:

Ispilu-akabera duten betaurrekoak ikusiko dira aurten, 1980-90. hamarkadetako *lookera* itzuliz. Retroa puri-purian dago.

Ray-Banen klasikoa den **Aviator** betaurrekoa ere itzuliko da aurten. Inoiz ez da modatik kanpo gelditu eta, ez badituzu, oraintxe duzu aukera. Kolorre ugaritan aurki daitezke, baita polarizatuak ere.

*Vintage*aren itzulerarekin segituko dugu, kolorez eta *glamour*raz betetako 60. hamarkada ez da atzean geldituko. Horrela, John Lennonen modelo **bobila** aunitz ikusiko da baina ukitu modernogarekin.

Cat-eye estiloko betaurrekoek pasarelak betetzen dituzte aurreko hamarkadetako *glamourra* gogoratzeko. Aurpegi guztietan ez du ongi ematen baina puri-purian dago.

80. hamarkadan Ray-Ban-en modelo enblematikoa zena, **Wayfarer**-a, uda honetan ere eramanen da. Kolore eta estilu ugaritan, informalagoak izango dira eta baliteke monturak pixka bat dotoregoak izatea.

Eguzkitako betaurreko **karrratuak** ere indartsu datoz, batez ere XL neurrikoak.




eguzki betaurrekoetan
aukera zabala dugu
udaberri honetan!



www.intzurioptika.com

INTZURI OPTIKA
Bitorre 281, Legea 1548 527 550



PEIO
mode



MARKA HOBERENAK

MARKA HOBERENAK GUZTIENTZAKO

MANGO **Levi's** LACOSTE

Papa Jeans **IKKS** G-STAR RAW

Dezigual. VERO MODA' ESPRIT

ONLY. **Bench.** **LACOSTE LIVE** DOCKERS'

OUTFITTERS' NATION **JACK & JONES'**

ONLY PLAY. *Le temps des pépées* **I.CODE** **CONVERSE'**

SELECTED TOMMY HILFIGER

POLO RALPH LAUREN **Superdry.** *Little Marcel*

DENIM & SUPPLY RALPH LAUREN **RIP CURL** **OXBOW**

ORCHESTRA 3pommes' **LOLLIPOPS**

EASTPAK **lotto** ...ETA ASKOZ GEHIAGO!

BAIETZ GUSTUKO IZANI!

Dantzarinea Ibardin Valcarlos Behobia

www.venta-peio.com ☎ 0820 562 267 (fr) ☎ (+34) 902 210 800 (es)



UDALA → ORAINGOZ ASTEAZKENERO EGINEN DA

'Autorik gabe, hagitzez hobe!' kanpaina abiatu da

Ikastetxeetara bidea oinez edo bizikletaz egitea da helburua

TTIPI-TTAPA

Udalak, ikastetxeek (Ricardo Baroja eskola publikoa, Labiaga ikastola, Jesusen Bihotza ikastetxea, Toki Ona institutua eta Mukixu haur eskola) eta Semper autoeskolak bultzatuta, Autorik gabe, hagitzez hobe! kanpaina abiatu zen apirilaren 10ean eta asteazkenero gauzatu nahi dute.

2011ko abenduan onartu zuen Udalak mugikortasun plana. Georztikan hainbat urrats eman dira arlo honetan beti ere herriko eragileekin elkarlanean: seinalizazioa hobetu, oinezkoei bide segurua emateko neurriak hartu, abiadura mugaratu, bizikletaren erabilera sustatu, edota aparkalekuetan hobekuntza neurriak hartu.

Orain aurkeztu den kanpaina azkeneko hila betetan herriko ikastetxeekin batera landutakoa da, eta helburua eskolarako bidea oinez edo bizikletaz egitea bultzatzea da, autoa etxean utzita.

Horretarako, ikastetxe guztietan, klaseetan, saio bereziak lantzen ari dira neska-mutikoekin, maila bakoitzean bere neurriko edukia aztertzen, Semper autoeskolaren laguntzarekin. Horrezaz gain, maiatzean haurrentzako bi auto-zirkuitu prestatuko dira, foruzainen laguntzarekin. Gurasoentzako lan saio bat ere landuko da. Guraso guztiei banatuko zaizkien eskuorria ere argitaratu da eta asteazkenero eskolara sartu-ateratu orduetan autoen pasoa debekatuko da eskola eremuetan, eta herriko albienteak bertan egonen dira.

Bidazi transformazio proiektua

Bidazi transformazio mugimendua aurkeztu da apirilaren 17an. Egitasmo honek egungo bizimoduari buruzko hausnarketa egitea biltzen du, honen bidez alternatibak aurkitu eta gauzak aldatzen hasteko pausoak emateko. Horretarako martxan jarri nahi den lehenengo proiektua zonaldean ekoiztako produktu freskoak eta kimikorik gabek eskuratzeko azoka bat antolatzea da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zelaietatarrek irabazi dute Genaro Taldearen mus txapelketa

Eskualdeko Errealzaleen Genaro Taldeak antolatutako IV. Genaro Taldea Mus txapelketa jokatu zen apirilaren 7an Xuga ostatuan. Laugarren aldi honetan 18 bikotek parte hartu zuten, iaz baino 5 gehiagok. Joxe Mari eta Joanito Zelaia anaiek eta Asier Saraguet eta Xabi Irazoki beratarrek jokatu zuten finala. Bertan anaia zenari omen eginez, Zelaiaetarrak izan ziren nagusi. Garaikurrak gain, Xugan bazkari bana, Erreala-Real Madril partidua ikustera joateko sarra bana eta Genaro Taldeko bufanda bana eskuratu zituzten. Txapelkunordeak, berriz, bildots erdi bana eta bufanda bana. Hirugarren saria Txelu Oiarzabal eta Estibaliz Berroetarentzat izan zen eta hauek ardo eta txanpain lote bana eta Genaro Taldeko bufanda banarekin joan ziren etxera.



ARGAZKIA: TELLETXEA

207 txirrindulari XXXVI. Felix Errandonea Memorialean

Junior mailako txirrindulariei zuzendua, Felix Errandonearen omenezko 36. Lasterketa burutu zen apirilaren 7an. Aurten, Euskal Herriko txapelketarako baliagarria izaki, inoiz baino partehartzaile gehiago izan zen, 207 txirrindulari guzira. Horetatik 145ek lortu zuten ibilbidea burutzea eta Caja Ruraleko Alex Aranburu izan zen bizkorrena. Sari banaketan Miguel Indurain izan zen, Gure Txokoako ordezkariekin eta Rosa Mari, Felix Errandonea zenaren alabarekin batera. Gure Txokoa Elkarteatik eskerrak eman nahi dizkiete laguntzen aritu zirenen guztiei, Bera, Lesaka eta zirkuitoko bidegurutze guztietan.

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

carnha
gozategia elandaga
Pl. de etxezara 25 baxo 48900 beraznavarra 948 630 099
www.carnha.net

Frutas
Vaporizadas
BRANDONEA, S.L.
FRUTAS DE CALIDAD
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

LESAKA

KULTURA → APIRILAREN 21EAN

Nafarroako Soinalarien Eguna herrian ospatuko da igandean

Ehun bat akordeolari kalejiran ibiliko dira eguerdian eta bazkaria izanen dute Linddurrenbordan

Aitor **AROTZENA**

Nafarroako Soinalarien Eguna ospatuko da apirilaren 21ean herrian. Igande eguerdian kalejiran ibiliko dira Nafarroa osotik etorritako akordeolariak. Gero, Linddurrenbordan bazkalduko dute eta bazkal ondoan ere akordeoi doinuak izanen dira.

Xalbador Madariaga, herriko akordeolari taldeko zuzendariak aipatu digunez, aurtengoan hirugarren edizioa betekiko du Nafarroako Soinalarien Eguna: «Duela bi urte Amaiurren bildu ginen bazkaltzera 30 bat lagun eta iaz Eugin 64 izan ginen, egitarau

zabalagoarekin. Aurten Lesakan ehun soinalaririk goiti elkartuko gara». Gaur egun 22 akordeolari biltzen dira herriko taldean eta 30. urteurrenako ekitaldia ere prestatzen ari dira maiatzaren 25erako. Hiru hamarkadako ibilbide horretan, 1992an eta 1993an nazioarteko sari garrantzitsuak irabazi zituen Parisen eta Italiako bertze lehiaketa batean bosgarren postua ere eskuratu zuen. 2008an, 25. urteurrena ospatzen zuen urtean, Sanferminetako txupinazoa botatzeko ohorea ere izan zuen Madariagak, akordeolari taldearen izenean.

Tantirudantza ere igandean

Tantirumairu Euskal Folklore dantza taldeak antolatuta Tantirudantza jaialdia ospatuko da apirilaren 21ean. Herriko Tantirumairu



ARGAZKIA: JOSE LUIS SUNSUNDEGI

Beti Gazteko mendizaleak Santiago Bidera itzuli dira

Santiago Bideko hirugarren denboraldiari ekin dio Beti Gazteko mendi taldeak apirilaren 7an. Aurten Logroño eta Burgos arteko bidea egitekoa dute bartz etapatan eta lehenbizikoa, Errioxako hiriburuaren eta Naxeraren artekoa, 51 erromesek egin zuten. Mahasti artean egin zuten 30 kilometroko bidea, eguraldi goxoarekin. Navarreten indarberritu eta etapa bukaeran Naxerako kiroldegian bazkalduta ondotik, herrira bueltatu ziren.

dantza taldeko neska-mutikoekin batera, Tolosako Udaberri, Getariako Gure Txeru eta Dulantziko Haize dantza taldekoak gonbidatu dituzte aurtengoan.

Igande goizeko 11:00etan kalejira eginen dute taldeek bakoitzak bere aldetik, ibilbide ezberdinetan. 12:15ean Zubigainekoa dantzatuko dute herriko dantzari tikiak eta 12:30ean plazan bilduko dira talde guztiak saioa eskaintzeko. Kanpoko dantzariak herrikoen etxeetan banatuko dira bazkaltzeko eta arduradun eta musikariek elkarrekin bazkalduko dute. 17:30ean *Irrien Lagunak* ikuskizuna eskainiko da plazan, Martinbertso, Marikalanbre eta Largabistaren eskutik.

Mendian zakurrak kontrolpean

Azken boladan keza franko jaso dira udalaren artzain eta baserritarren aldetik, mendira zakurrekin paseatzera edo ehizara joaten diren hainbatek ez dituztelako beren zakurrak behar bezala zaintzen, eta ondorioz areagotu egin direlako azken boladan mendian bazkatzen ari diren azienden kontrako erasoak. Beraz, Udalletik eskatzen zaie zakurren jabeen inguruan animaliak daudenean zakurra lotzeko edo kontrolpean edukitzeko neurriak har ditzaten, guztion elkarbizitza eta hobeez zaindatzeko asmoarekin.

Hori egin ezean, Herriko Etxeak ez du baztertzeko neurri zorroz-

tzak hartzeko aukera, bando batean jakinarazi duenez.

Arriondoa Kultur Etxea

Kultur Etxea eta bere aretoen izenak aukeratzeko proposamen eta bozketa deialdiak bukatu eta kontaketa egin ondoren, dagoeneko aukeratu du Herriko Etxeak oraindik obretan dagoen eraikinerako izenak.

Honela, kultur etxearen eraikinari Arriondoa deituko zaio. Ekitaldi aretoak Txokobiko izena izanen du eta eliza zenak, Komentuko eliza. Kultur Etxearen baitan izanen diren bertze bartz gelek ere badute izena: Korua, Zumarra, Alasta, Erkazti eta Maredí.

Ba al zenekien...

UEMAko kide berri egin dela Lesakako Udala, Tolosa, Zarautz, Lekeitio eta Munitibar herrien batera. Honela onartu zuen Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak martxoaren 16an Orion egin zuen batzar nagusian.

XATURETXEA
JATETXEA
T. 948 637 260 · LESAKA

IRU BIDE
Energia · Auzola
Barrutia, 31 · Lesaka
Tel. 948 637 127

kulki
umeentzako kultur kirolak
Tel. 948 552 171
www.kulki.org

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Barria eros! taldea

Lentena Berrantolak Martxoaren 16an Jantzi-epikak Pizten Maizak
kaltzagorria
Beneko plaza 10 30770 Lesaka
T. 948 427 514

GIZARTEA → MARTXOAREN 23AN

Kontrabandisten mendi itzulia arrakastatsua izan zen

Hainbat herritatik hurbildu zen jendea

Iruñe eta Itsaso

Martxoaren 23an 70 bat lagun inguruk egin zuten gauezko mendi itzulia eta herriko jendeaz gain, Bortzirietatik, Baztan aldetik, Gipuzkoatik eta Iruñaldetik ere etorri zen jendea eta bazeuden Palencia, Madril, Kantabria eta Biriaturko batzuk ere. Ibilbideak interes handia sortu zuen eta ETB eta Telenavarratik ere etorri ziren ibilbidea grabatzera. Antsolokueta auzotik abiatu zen, Perugorria baseritik zehar eta Aldalurko borda gaine-

tik Usategietara eta bidean geldialdi batzuk egin ziren, etxeetako zakurrak nola ixilarazten zituzten eta bidegurutzeak nola zaintzen zituzten azaltzeko. Txorilepon berriz Kontrabandistak eta eltzetzuek agertu ziren ilunpetan, beraien antzezpena eginenez. Buelta berriz, Errandoko lepotik, Gorosurreta auzoan beiti joan eta Elizaldeko bordatik Antxurneko borda azpialdetik pasa eta Arrosee parean berriz ere herri-ara sartu ziren. Eguraldi ona zegoen gauez ibiltzeko eta ilargi ederrarekin, ez zen linterna beharrik ere zenbait lekutan. Bertiz Partzuergoak ere lagundu zuen antolakuntzan eta balazioa hagitz ona egin zen.



ARGAZKIA: LANDAGAIN ESKOLA

Korrika Ttikia

Korrika ttikia martxoaren 15ean ospatu zen. Eguerdian, Landagain eskolako ikasleak herriko txoko ezberdinetan banatu ziren; (3.ziklokoak eskolan, 4.mailakoak herri sarreran, 2.eta 3. mailakoak Laraburun, 1. mailakoak Arrosee iturrian, 4 eta 5 urtekoak Andutzeta auzoko aparkalekuan eta 3 urtekoak Caixan) eta zaharrenak eskolatik korrika hasita denak elkarrekin frontoira ailegatu ziren. Bertan jolasak egin eta guraso ekarteok eskeinituako berenduarekin eman zioten akabera egunari.



ARGAZKIA: ONINTZE ZINKUNEGI

Korrika handia

Martxoaren 16ean pasatu zen korrika handia Etxalarko Bentatik. Herriko 3 ordezkari izan ziren lekuko eramaten Etxalarko 1.5 kilometroetan: Udal kilometroa (Etxalar Antzinerat), Altxatakoa eta Euskara Batzordeko kilometroa. Eguraldiak eta ordutegiak lagundu ez bazuten ere, ez zen korrikarako umorerik falta izan.

ASTE SANTUA

158 lagun pasatu ziren Turismo Bulegotik

Iruñe eta Itsaso

Aste Santuan eguraldiak ez zuen aunitz lagundu. Herrian 38 bisita gidatu egin ziren eta 158 lagunei eman zitzaion zerbitzua Turismo Bulegoan. Hauen artean Euskal Herri guzitik, Katalunia, Asturias, Errioxa, Burgo, Zaragoza, Valladolid eta Valenciatik, Frantziatik eta Ingalaterratik etorri zirenak. Zerbitzua erabili zuten gehienak landa etxetako bezeroak izan ziren. Bitxikeri gisa, aipatu ortziraletan jende mordoxka hurbildu zela Infernuko Errotaz galdezka. Arrazoa; ortzegunean ETBn agertu zela Etxebertzeko bordari buruzko erreportajea. Herriko itzulia eta mendiko ibilbideei buruz galdetu du jendeak, baita Zugarramurdiko lezeaz, Infernuko errota eta Bertizko parkeaz. Bisitari kopurua igo da turismo bulegoan aurtan. Frontoian seinale bat jarri zen eta hori izan daiteke arrazoa.

LESAKAN

Kooperatiban babes ofizialeko 16 etxebizitzaren promozioa



- 90m²ko etxebizitzak maila altuko akaberarekin
- Hiru logela, bainugela kompletua, balkoi handiak
- Aparkalekua garajejan eta trastelekua
- Beheko solairu eta hiru altura gehiagoko etxebizitzak igogailuarekin



LARREATEGI kooperatiba

T. 948 317 136 | M. 609 723 707 | espartal.clientes@gmail.com

ARANTZA

GIZARTEA → EHUN URTE BETE DITU ESKOLAK

Eskolaren mendeurrena ospatzeko besta ekainaren 8an egingen da

Egitarauaren barnean, erakusketa bat osatzeko materiala biltzen ari dira

Nerea ALTZURI

Aitzineko alean aipatu bezala, herri eskolak 100 urte bete ditu aurten. Eskolako irakasle goa eta guraso elkar-tea, udala, Ekaitza elkar-tea eta Gazte Asanblada elkarlanean ekainaren 8rako egitaraua prestatzen ari dira. Egitarauaren barnean, maiatz akaberan erakusketa egingen da eskolan. Eskolarekin zerikusia duten materialak ikusgai izanen dira: argazkiak, liburuak, koardernoak, lanak, eskolako materiala... beti ere, 100 urteko ibilbidearen

laburpentxo bat atonduko dute. Hori horrela, egitasmo hau gauzatu ahal izateko, herritarren laguntza ezinbertzekoa da. Hortaz, etxeko edozein xokotan, ganbaran... erdi ahaztuak diren material eta dokumentuak eskolara ekartzeko deia egin dute, erakusketa osatzen joateko. Eki- men honen bitartez, zokoratuak diren material- lei bizia eman eta garai bateko kontuak oroitze- ko baliagarri izanen dira. Beraz, eskolarekin lotura duen edozein elementu bertara eramateko gonbidapena egin da.

Egitarauko zenbait ekitaldi aintzinateko, dantzariak, herri kirolak, bertsolariak, herri bazkaria eta proiektio bat ere aurkeztuko da. Aldizkari bat osatzeko lanean ere ari dira.



UTZITAKO ARGAZKIA



ARGAZKIAK: NEREA ALTZURI
Goitian, 1913an eskola inauguratu zuteneko argazkia. Erdian, eskola gaur egun, 1987an berritu eta gero.

Bien bitartean, egune-ko ekitaldiak lotzeko bileratan ari dira eta joan den ortziralean antolatzaileak biltzekoak



BORTZIRI
UNSION ANIAK
Sukalderako altzariak

Berean etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

BAR
Botxo
OSTATUA

Zelai • BERA • 948 630 052

JARRIE-GOZATEGIA

948 630 786
Alzale, 19 • BERA

F. LANCHAS

Aku, boladorea eta berrizatzaila
Parket eta parket flotatzaila
jarria
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

aterpe
Altegora jantzerako lekua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

OSPAKIZUNAK → EUSKARA BATZORDEAREN ESKUTIK

Udaberriko bestak apirilaren 27, 28 eta maiatzaren 1ean

Igandeko merkatuan biltzen dena gida berritzeko eta etxeen izenekin errotuluak paratzeko erabiliko da

izanen dira plazan eta 20:00etan Mugaldekoak filma eskainiko da eskolan.

LAUGARREN MERKATUA

Apirilaren 28an, igandearrekin, 11:00etatik 18:00etara plazan egingen den merkata izanen da udaberriko bes-tetako ekitaldi nagusia. 2007an Igantziko Euskara Batzordea merkata antolatzen hasi zen. Helburua zen herritarrek emandako gauzekin merkata antolatzea eta hortik ateratako diruarekin herrirako proiektu bat aitzinera atera ahal izatea. Errate baterako, lehen edizio hartan bildutako diruarekin herriko mapa egin zen. Geroztik merkata bi urte-tik behin egin izan da, eta aurtengoa laugarrena izanen da.

TTIPI-TTAPA

Euskara Batzordeak antolatuta Udaberriko bestak ospatuko dira apirilaren 27 eta 28ko asteburuan eta maiatzaren 1ean, asteazkenarekin.

Apirilaren 27an, larunbat goizeko 10:00etan ibilaldi gidatua egingen da Berrizaunera, plazatik abiatuta. 16:00etan haurrentzako jokoak eta berendua



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Merkaturako puskak eman nahi dituenak batzordeko kideekin harremanetan jarri behar du.

Aurten, merkatuan bilduko den dirua herriko gida berritzeko eta etxeei beren izenekin errotuluak paratzeko erabiliko du Euskara Batzordeak. Bertan salgai izanen dira herritarrek emandako etxeko puskak (barazkiak, landareak, arraultzeak, mermeladak, kontserbak, postreak, eltzaurrak...) nahiz bigarren eskuko tresnak (CDak, DVDak, ipuinak, liburu-

ak, jostailuak, apaingarriak, bitxiak, boltsoak...), guztiak prezio ezin hobean. Euskara Batzordeak informazioa banatu du etxeetara, eta puskak eman nahi dituenak apirilaren 20rako harremanetan jarri behar du batzordeko kideren batekin.

Horrez gain, herriko bi ostaturek bi lagunentzako otorduak eskaini dituzte, eta horiek azken orduan zozketatuko di-

ra. Zozketarako boletoak egun osoan salgai izanen dira merkatuan bertan. Arratsaldean opilak izanen dira, eta herriko trikitilarien saioa ere izanen da.

Udaberriko bestak borobiltzeko, maiatzaren 1ean, asteazken eguerdian *Igantzikan-tari* saioa egingen da karraketan barna eta pintxo-potea eskainiko da Allinean eta Herriko Etxeko ostatan.

ZUBIONDO
Jatetxea
Lugardeotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TEL. 948 62 0472

IMANOL ITURRIA
ZURGINA
Enpresa eta partikular
T. 661 577 137
E-posta: imaiturria@hotmail.com
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe


ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

Laster eraikitzeko 4 ETXEBIZITZA BIFAMILIAR | BERAn, Pio Baroja karrikan



Promociones Urbanísticas BIDASOA S.L.
Monasterio de Irache, 49 - 10.D | IRUÑA | T. 626 54 20 59 | prourbidasoa@gmail.com

GAZTE OIHUA

GIZARTEA → GAZTE MUGIMENDUA

Gazte Danbadatik indarberriturik itzuli dira gazteak

GAZTE OIHUA

Martxoaren 29tik apirilaren 1era Urduñan ospatu zen Gazte Danbadan 7000 lagun inguru egon omen ziren eta horien artean eskualdeko gazte dexente ere elkaritu ziren, izan lau egunetan zehar ala egun bakanetako joan etorrian. Han izandako batzuek erran digute aront esperientzia polita izan dela, bai giroaren aldetik eta baita tailer zein hitzaldi ezberdinetan ikasitakoarengatik. Hauek goraino beteak

egon omen ziren antolatzaileen erranetan eta interesgarri zein anitzak izan ziren. Lau egunen ondoko nekea alde batera utzirik, animoz beretik itzuli dira gazteak herrietara eta lanean segitzeko gogoa dutela argi erakutsi dute.

Lesakako Ernaiko kideek murala paratu dute

Zabaletako dorrearen behekaldean paratu dute "Ernai, antolakuntza: independen-



UTZITAKO ARGAZKIA

Gogotsu parte hartu zuten eskualdeko gazteek Gazte Danbadan.

tzia, sozialismoa eta feminismoa" dioen mural koloretsua. Izan ere, horiek baitira gazte antolakundearen oinarriak eta kolore biziz herria aldarrikapenez bete zein alaitu nahi izan dute.

Informazioa bidatzeko eta harremanerako helbidea: ttipigazte@gmail.com

BERA

Gazte Eguna apirilaren 20an

TTIPI-TTAPA

Larunbat honetan ospatuko da Berako Gazte Eguna. 10:30ean altxaferua botako da. Ondotik tailer ezberdinak eginen dituzte. 12:30ean *Txi-meletak* dokumentalaren emanaldia. 14:00etan bazkaria (txartelak salgai daude 10 eurotan ostuetan, apirilaren 17a bitarte). Ondotik bertsolariak eta 18:30etik aitzinera poteoa eta musika.

Zure esku dago!



UDAKO IKASTARO TRINKOAK

Helduentzako eta gaztetxoentzako IKASTARO TRINKOAK ingelesez, frantsesez eta alemanez.

Hasiera: **uztailak 1**

Ordu-kopurua: egunean 2 edo 4 ordu

Haurrentzako IKASTARO TRINKOAK ingelesez edo frantsesez + jarduera-programa egunero. Adina: 4 eta 11 urte bitartean
Hasiera: **uztailak 1**

Matrikula dohainik 2013/05/30a baino lehen izena ematen baduzu. ERRESERBATU ZURE PLAZA!
San Ferminetako besta-eguna berreskuratzen ahal dira.

Koskontako bidea, 11, behea LESAKA 948 637 135 www.acornlanguages.com





ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Aste Santuko igandean giro ederrean ibili ziren haurrak.

OSPAKIZUNAK → PINTXOAREN ASTEA

Ariztigain kanpinak irabazi du pintxo lehiaketa


Maider PETRIRENA

Aste Santuan denborak ez du sobera lagundu baina halere ekitaldi andana izan dira. Martxoaren 28tik 31ra l. pintxo astea egin zen lau ostatuetan. Bina pintxo dastatzeko eta bozkatzeko aukera izan zen. Ariztigain Kanpinak Ajoarriroz betetako kanutilloa eta txanpinoi bete egin zituen; Itturburuk onddoz betetako hojaldrea eta vieira; Fondan kalabazin bete eta magra eta Bustitzen ganba-brotxeta eta alkatxofa bete. Kanpinako ajoarriroz betetako kanutilloa izan da irabazlea eta bigarrena Itturburuko vieira. Pintxoak dastatzen eta

bozkatzen parte hartu zutenen artean herriko produktuez betetako saski bat zozketatu zen eta Arantxa Ibarrari suertatu zitzaion.

PROZESIORIK EZ

Ortziral Santuan dena prest zegoen baina prozesiorik egiteko aukerarik ez zen izan eguraldiarengatik. Gauean kanpinean Txuri-beltz taldeak emanaldia eskaini zuen. Igandean haurrendako jokuak izan ziren, baita txokolatada eta musika ere *Ladrones de gitarra*ren eskutik. Igandean eguraldiak lagundu zuen eta kanpinean izugarrizko haur pila zegoen atsaldede polita pasatzen.



ARGAZKIA: ANA BELEN AGERREBERE

Malerrekako Eskola Ttikien Joku Topaketa

Martxoaren 26an Malerrekako eskola ttikiak joku topaketa ospatu zuten berzte urte batez Sunbillan.

Hagitz giro onean pasatu zuten eguna, jokuak, zinema, eta txantxariak taldearekin. Taldeka jarri ziren eta argazki bat atera eta etxera eraman zuen haur baikoitzak. Frontoiaren kanpokaldean ikasle, irakasle, nola gurasoek murrizketaren kontrako elkartarraztea egin zuten, eguna akitzeko.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Igerilekua

Apirilaren 5ean Udalak egindako ohiko bileran udarako piszina irekitzeko bete behar diren baldintzak onartu ziren. Aurtengo prozedura irekia eta lehiaketaren bidez egingen da. Lehiaketaren hasierako prezioa 9.000 eurokoa da (BEZ barne) eta prezioa eta baliabide teknikoak baloratuko dira. Eskaintzak maiatzaren 9ko eguerdiko 12ak bitarte aurkezteko modua izanen da. Ekainaren 15etik irailaren 15a bitarte izanen da lana eta langileek sorosle akuatiko titulua izan behar dute. Informazioa Nafarroako Kontratazio Atarian dago.



ARGAZKIA: ANA BELEN AGERREBERE

Itziar Mikelperizenaren tailerrera bisita

Itziar Mikelperizena margolariak duen tailerrera egin zuten bisita 3, 4 eta 5 urteko gelakoek beraien tutore diren Ana Belen, Ane eta Anarekin.zien. Segi horrela. Argazkian 3 urteko taldeko ikasle batzuk.

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

TELLETXEA
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESACA • T. 619 418 683 • johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorazaintza.com

zalain
LATEZEA - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
T. 948 631 106
W. www.zalain.com

DONEZTEBE

GIZARTEA → APIRILAREN 5EAN AURKEZTU ZUTEN

Bidasoako Pedalak izeneko ekimenak 190 kilometroko ibilbidea eskaintzen du

Donezteben hasi eta bukatuko da Patxi Iratzoki eta Cristina Arbuésekin bultzatutako ekimena

ezagunak dira egitasmoaren bultzatzaileak. Beraiekin batera, Pep Vega, *Pedales del Mundo* zuzendaria, Peio Sanz zinegotzia eta aitatxi eta amatxi lanak bete zituzten Juan Carlos Garro eta Margari Aierza txirrindulari ohiak izan ziren aurkezpen ekitaldian.

Bizikletan egindako kirola eta turismoa uztartu nahi ditu egitasmoak eta parte hartzen dutenen sasoiaren arabera, hiru, lau, bortz edo sei egunez egiten ahal da ibilbidea. Katalunian ongi errotutako produktua da. Izan ere, 2005ean *Pedals de Foc* sortu zuten eta geroztik bertze zortzi egitasmo ere sortu dira, Katalunian ez ezik, Frantzia, Aragoi, Lanzarote edo Granadan. Bidasoaldeko ibilbidea da sarean sartu den azkena eta Doneztebe, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi,

TTIPI-TTAPA

Bidasoako Pedalak mendiko bizikleta ibilbidea aurkeztu zuten apirilaren 5ean Doneztebeko Herriko Etxean. 190 kilometroko luzera eta 5.200 metro inguruko gainbehera pilotatu duen ibilbide honek, Baztan-Bidasoa, Lapurdi eta Gipuzkoako kostaldeko inguruak zeharkatuko ditu eta Donezteben izanen du irteera eta helmuga eta *Pedales del Mundo* izeneko sarean sartuko da.

Patxi Iratzoki eta Cristina Arbues kirolari



UTZITAKO ARGAZKIA

Elikagai Bankuaren aldeko futbito txapelketa arrakastatsua

Ia 200 partehartzaile izan ditu Mendaur eta Erreka guraso elkarteek antolatutako futbito txapelketa mistoak. Partehartzaileen %60a mutikoak izan dira eta %40a eskak. Txapelketa honen helburua kiroltasuna eta elkartasuna uztartzea zen eta ederki bete da. Apirilaren 3an eta 4an eta, 16 orduz, futbito gozatze-ko aukera izan da kiroldegian. Partehartzaileak Malerrekakoak izan dira eta ongi pasatzeaz gain, eskualdean sortzen ari den elikagai bankuko "akzio bana" erosi dutela erran daiteke. Bildutako dirua Mankomunitateari eman zaio.

Urdazubi, Ainhoa, Sara, Azkaine, Biriatu, Hendaia, Hondarribia, Pasai Donibane, Errenteria, Oiartzun, Bera, Lesaka, Igantzi eta Arantzeta zeharkatzen ditu. «Bidearen %80 baino gehiago pista eta asfaltatu gabeko bideetan barna egiten da, mendi eta itsasoaren bista ikusgarriekin», aipatu zuen Cristina Arbuesek. Inguruak eskaintzen dituen baliabide eta azpiegiturak aprobetxatuko dira eta gaua, aitzinetik erreserbatutako tokietan emanen dute parte-

hartzaileek, bakoitzak gastatu nahi duenaren arabera. Ibilbidea hasi aitzinetik, gidaliburua jasoko du txirrindulariak, baita zenbait opari eta, aukeran, GPSaren *track* ere, ibilbideak ez baitu inolako seinale berezirik. Ibilbidea bukatzen dutenek maillot berezia izanen dute opari, salgai paratuko ez dena. Martxoan hasi eta Domisaindu bitarte ibilbidea egiteko aukera izanen da eta dagoeneko bi gasteitarrek estreinatu dute. Lau egunez egin zuten ibilbidea.

BIRZIKLAPENA

Doneztebe Udaberritua! tailerra martxan jarri dute gurasoek

TTIPI-TTAPA

Mendaur eta Erreka guraso elkarteek, Bir-bira lan-taldearen laguntzaz, *Doneztebe Udaberritua!* birziklapen tailerra martxan jarri dute. Bortz saio burutuko dira; lore anitz egitea eta Doneztebe udaberritzea helburu izanda. Bertze saio batean txorimaloak egiten dira eta hainbat tokitan paratuko dira herria apainduz. Tailer hau apirilaren 10ean hasi zen eta data hauetan burutuko da: apirilaren 17an eta 24an eta maiatzaren 8an eta 15ean. Saio guztiak zinean izanen dira, asteazketan eta arratsaldeko 5etatik 6:30era.

Gure Haragia
Nuestra Carne

ola
SAGARDOTEGIA

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAJA IREKIA

102 Meaka suzoa - 20304 IRUN - Tfnoa 943 623 130

Alustiza

ttiipi ttapa

% 10eko
DESKONTUA
30€tik gorako
gastuan

BERTIZARANA

HERRIKO ETXEA → MARTXOAREN 14AN

Hirigintza Plana onartu du Udalak

Hasierako onespena eman dio

TTIPI-TTAPA

Bertizaranako Udalean egindako bilkuran, udal hirigintzako planaren hasierako onespena adostu zen martxoaren 14an. Plan honek zehazten ditu bailaran zeintzuk izan behar diren hirigintzari eta lurra-
ren erabilerari dagokionez printzipio nagusiak.

Apirilaren 5ean Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Udal Hirigintza Plana eta

Ingurumen Inpaktuari buruzko Azterketaren dokumentazio guztia publikoki jakinarazi da hilabete bateko epean. Honela, interesatua dagoen edozein pertsonak, dokumentazio guztia aztertu eta dago-kion alegazioak aurkeztu ahal izanen ditu.

Trenbidean lur eroria

Orain dela aste batzuk, Legasa eta Doneztebe artean lur erortza haundi bat izan zen. Bide hau arront erabilia da, bai bizikletaz baita oinez ere, Doneztebera joateko. Orain arte Uda-



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Hiru bildotseko ardia

Narbarteko Xubindoa etxean ardi bat erdi eta hara non hiru bildots egin ditu, denak ongi eta ardiak ederki hazitzen ari da, argazkian ikus daiteken bezala.

la lanean aritu da lehenbailehen zati hau garbitzeko baliabideak bilatzen, eta azkenean Nafarroako Gobernuo sari ezberdinetako teknika-
kariekin egon ondoren, datorren egunetan Mariez kurrenako langileek bidea garbituko dute.



ARGAZKIA : ANTONIO
Trenbideko erortza.

GASOLINDEGIA
DENDA | OGIA | PRENTSA
Ordutegia: 06:00-22:00 egunero
Zalain Industrialdea | BERA | 948 630 249

EZKURRA

TURISMOA → EGURALDIAK EZ ZUEN LAGUNDU

Turista ugari ibili da Aste Santuan

ETBk herriaren etorkizunari buruzko saioa grabatu zuen

Fernando ETXEBERRIA

Krisi ekonomiko larria bizi dugun arren, turista ugari hurbildu ziren aste santuetan Ezkurrara. Ostatua beteta egon zen eta eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, inork ez zuen erreserba bertan behera utzi. Euskal Telebistaren bisita ere izan genuen, herriaren etorkizunari buruzko saio bat grabatu zuten.

Erreka garbitzea

Berriki prentsan agertu denez, 800 boluntario aritu dira erreka garbitzen azken urtean Nafarroan. Ezkurran ere arlo horretan badago zeregina, Ollin-

go erreka inguruak egoera tamalgarrian baitaude. Neumatikoak, uralita zatiak... ikusi litezke bertan.

Inguruko herrietako erredua segiz, auzolana bultzatu eta garbitu beharko lirateke. Gure herrietako erreka eta inguruak txukun eta garbi mantentzea guztion ardura baita.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Erreka inguruak txukun mantentzea guztion ardura da.

HERIOTZA

Patxi Balda taxista hil da

F. ETXEBERRIA

Azken aldia okerrera egin zuen Francisco Patxi Baldaren osasun egoerak eta azkenean martxoaren 27an ingresatu eta bi egunen burura, martxoaren 29an, hil zen 84 urterekin.

Gizon irekia, ona eta atsegina zen. Eskualdean Ezkurrako taxista bezala ezagutzen zuten eta errepidean zuen zuhurtziagatik eredu izan zen. Sei seme-alaben aita zen eta sarritan ibiltzen zen bere emaztearekin Perraleku inguruan paseoan. Aurtetik beteko zituen 85 urte eta Arkupeak elkarteak omenaldi xume bat egiteko asmoa zuen. Urtemugan ez da gurekin egonen, baina izan bitzela lerro hauek ongi merezia duen omenaldia.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Patxi Balda, Arkupeak elkarteko bazkari batean.

TTIPI TXARTELA
harpidetza baino merkeagoa da!

deSKONTUAK

AUTO TALERRAK: Barroa | Debaceta | Sarratza | Zabañeta. AUTO ESKOLAK: Sempere. ARGAZKI-DENDAK: Gorka | Mena | Zaitza. ARROPA-DENDAK: Bikiak | Edurne | Tereke. BINGI | Juan I. Pizarra | Katalagoien | Kikuak. BIKILETA TALERRAK: Kuba-Rike. ESTETIKA ZENTROAK: Aneta | Aneta. ETXETRESNARI: Abuzi. FOTOKO INPRENTA: Sorozodi. HAURREN GAUZEN DENDAK: Pizti. JATETXEAK: Pasaia Ota | Elbeteke Pasaia. KIROLDENDAK: Gilvauri | Laskako Udal Kiroldegia. KIROL-DENDAK: Agara | Ipatxe | Zaki. LENTZERIAK: Katalagoien | Marimoz. LIBURU-DENDAK: Nabalprea | Mamiel. NUTRIZIOA eta DIETETIKA: Oria | Kimita | Erika. OPARI-DENDAK: Alaitza. OPTIKAK: Itzuri | Otegi. PENTSUAK: Mendaza. TINGATEGIAK: Jacine. TTIPI-TTAPA ZAPARRA-DENDAK: Ota | Tereke | Zargan.

TTIPI-TTAPA
aldizkaria doan
(24 aldizkari urteari)

ZOKKETAK
hamabostero
(parrerak, kamasetak, diskak, liburuak, otorduak...)

DESKONTUAK
40 komertzioetan
(tailerrak, dendak, optikak, kiroldegia, jatetxeak...)

40€ -10€ = 30€

TTIPI-TTAPAren urteko kuota 34€ baino du
TTIPI TXARTELA dutenek, 30€ pagatuko dute
urtean. Errentaren Altzaperarekin
10 euro itzuliko baitzate

Informazio gehiago:
ttipi-ttapa
Kostuntako bidela, 7-1
31770 LESAKA
Tel. 948 635 458
info@ttipi.net
www.ttipi.net

BEINTZA-LABAIEN

GIZARTEA → APIRILAREN 6AN

Behikaka.com zozketari esker Aquarium-era bisita egin dute

Egunpasa egin zuten herritarrek Donostian

Arantxa ITURRALDE

Joan den urteko udan, Behikaka.com zozketan, Donostiako Aquariumerako hainbat

sarrera tokatu zitzaion Beintza-Labaiengo herriari.

Apirilaren 6an, larunbatarekin, giro ederrean, sari honen aitzikian, egun eder batez gozatzeko aukera izan zuten bai haurrek baita helduek ere.



ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

Herritarrek pozik Donostiako Aquarium-ean.



ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE ETA IZASKUN ZUBIALDE

Gaztain ximalak bildu zituzten Ortzegun Santuan

Urteroko tradizioa bete zen aurten ere, Ortzegun Santuan. Ohitura den bezala, meza ospakizuna eta gero, herriko haurrek plazan bildu ziren etxez etxe joateko goxokiak biltzera, karrakak lagun zituztela. Etxe bakoitzean abesti bat kantatzen dute goxokiak jaso aurretik: *Gaztain ximal ximalak/andriak elizera/gizonak tabernera/ haurrek haurretera/apezak txokoltia hartzera*. Garai batean goxokiak banatu ordez, intxaurrek, urrak eta gaztainak botatzen zitzaizkien haurrei.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Tafalla, 13 - IRUÑEA - 948 230 634

2013 UDABERRIKO KOLEKZIO BERRIA
edredoi fundak - albornozak - edredoi nomikoak - ohe estalkiak - maindireak - mantelak - kuxinak - toailak

ITUREN

GIZARTEA → APIRILAREN 18AN GURASO ELKARTEAREN ESKUTIK

Interneten erabilera ziurraren inguruan mintzaldia prest

Azken hiruhilekoari ekin diote eskolan

Arkaitz MINDEGIA

Aste santuen aitzinetik Malerrekako Eskola Ttikien egunean parte hartu zuten herriko eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek, Sunbillan martxoaren 26an eta oporraldiaren ondotik, azken hiruhilekoan murgilduak daude.

Pulunpa eskolako

guraso elkarteak mintzaldiak antolatzen segitzen du. Hilabetero mintzaldi bat antolatzen saiatuko dira eta apirilari dagokiona hilaren 18an, ortzegunean egingen dute 4:30etik 6etara Interneten erabilera ziurraren inguruan, Jabier adituaren eskutik.

Ikastaroak martxan

Udalak herritarrei hainbat ikastarotan parte hartzeko gonbidapena luzatu zien. Herritarrek izena eman ondotik ia-

da egunak eta ordutegiak ere jarriak daude. Euskara hobetzeko ikastaroa apirilaren 23an hasiko da, arratsaldeko 6tatik 8etara izanen da eta Margak emanen du. Argazkigintza ikastaroa astelehenetan emanen da. Bi ordutegi dauzka: ttikiak 16:30-18:00etara eta helduak 18:45-20:00etara, Jagoba Manterolarekin. Josgingintza ikastaroa Doneztebeko Blankik emanen du apirilaren 11, 18 eta 25ean 17:00etatik



UTZITAKO ARGAZKIA

Malerrekako Literatur solasaldiak

Euskara Batzordeak antolatutako literatur solasaldien lehen saioa Herriko Etxeko ganbaran egin zen.

19:00etara. Informatika ikastaroa apirilaren 15, 22 eta 29an izanen da (17:00-19:00) eta baratzeko ikastaroa maiatzean izanen da.

Herriko bestak

Herriko bestak antolatzen laister hasiko da udala. Bilera bat deituko du herritar guzieren artean antolatzeko.

Jabier Sein

Mendiko bizikletan fuerte dabil denboraldi honetan ere Jabier Sein. Orain arte libre eta aurten Seguros Bilbao taldearekin ari da. Nafarroan Caja Rural Kopa eta Euskadiko Opeanean lider dago. Zangozan jokatu zen Espainiako Opeanean 14. sailkatu zen.

ZUBIETA

GIZARTEA → IKURREN LEGEAREN ERAGINEZ

Etxeko balkoietan ikurriñak hedatzen ari dira egunotan

Udaletxean Espainiako bandera jartzera derrigortu dute

Fermin ETXEKOLONEA

Ikurren legearen eraginez, Herriko Etxean Espainiako banderajartzera derrigortu dutenez, jendea etxeetan ikurriñak jartzen hasi da. Hogeitabat agertu izanen dira herri guzian. Legeak gauza bat dio eta herritarrek ere bere iritzia eman dute afera honetan.

Mus txapelketa

Hedabideen aldeko mus txapellketan Xabier Bendoiro eta Ezequiel Baleztena atera ziren txapeldun herrian. Baina beraiek ez zuten posible Sunbillara agertzea eta azpitxapeldunak, Parazelaietako bordako Jexux eta Joxe Santesteban anaiak jozan ziren herriko ordezkari. Gerora txapeldun izan zirenen kontra galdu egin zuten lehen partidana, baina arratsaldea gustora pasatu zuten. Hemengo txapelketan 60 euro bildu ziren eta Xaloa, Xorroxin eta Tti-



ARGAZKIA: FERMIN ETXEKOLONEA

Ikurriñak han eta hemen agertzen hasi dira etxeetan.

pi-Ttarentzako eman ziren.

Malerrekako Eguna

Maiatzaren 25ean Eratsunen egingen den Malerrekako Egunerako herri guzietatik zerbait aportatu nahi da eta Zubietatik joaldunak, Jauziak, talo egileak eta eguerdian paella prestatzeko arduradunak joatekoak dira.

Maestraren etxea

Maestraren etxeo igeltsero lanak hiru enpresari eskaini zizkion udalak. Erlaitz eraikuntza enpresak egingen ditu eta festetarako akitu beharko dute.

Mendiko lanak

Mendiko lan ezberdinak (alanbrea biltzea, garbitasuna...) ere enpresa ezberdinei eskaini zaiz-

kio eta lan hau Erlaitz oihangintza enpresak hartu du. Izen bera izan arren, enpresa ezberdina dira.

Herria telebistan

Navarra Televisión telebistako Ttanttaka programarako grabaketak egin dituzte apirilaren 10ean. Apirilaren 25ean emateko asmoa dute.

ELGORRIAGA

GIZARTEA → ORTZIRALETAN

Herriko Ostatuak pintxo-poteoa eskaintzen du

Flamenko kontzertua ere emanen du Daniel Matak

Mattin LARRALDE

Herriko Ostatuak, ortziral arratsaldeko 6etatik 9etara pintxo-poteoa jarri du ortziraletan. Orain dela hiru aste hasi ziren eta arrakasta handia izan du. Kontzertuak ere eskaintzen hasi dira. Joan den ortziraletan Daniel Matak ematekoa zuen.

Bere aurkezpenean zioen bezala «flamenkito del bueno» izanen omen zen. Hurrengo alean kontatuko dugu ona izan den eta jendearekin zer nolako konexioa lortu duen.

Udal langilea

Bertze aldetik, apirilak 5ean egin zen herriko langilea hartzeko lehiaketa eta bertan aukeratu izan da Ignacio, Udalak beharrezko ikusten dituen lanak egitera bidaliko du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Komunikabideen alde Herriko Ostatuan jokaturako mus txapelketan finalistak suertatu zirenak. Xabi eta Juanjok irabazi zuten.

Komunikabideen aldeko mus txapelketa

Martxoaren 23an jokatu zen Ttipi-ttapa,

Xorroxin Irratia eta Xaloa Telebistaren aldeko mus txapelketa. Herriko ostatuan izan zen eta bertara lau bikote agertu ziren. Apirilaren 6an

Sunbillan jokatu zen final handirako sailkatu zen bikotea Xabi eta Juanjok osatutakoa izan zen, bera izan baitzen herriko txapelkun.

URROZ

GIZARTEA → NATUR AISIALDI EREMURA SARTZEN DEN KOTXE BAKOITZEKO

Leurtzara sartzeko 2 euroko bidesaria kobratzen hasi da

Urrozko eta Beintza-Labaiengo udalek hartu dute erabakia

Joseba URROTZ

Urrozko eta Beintza-Labaiengo udalek erabakia hartu dute Leurtzara etortzen diren bisitariei sarrera kobratzeko. Orain arte Nafarroako Gobernuak Turismo sailak ematen zuten dirulaguntzakin ordaintzen ziren Leurtzako Natur Aisiarako eremuaren manteni-

mentu eta zerbitzuen gastuak. Dirulaguntza hau erabat desagertu ez bada ere, nabarmenki jeitsi da, eta herriak dirua paratu behar izatea saihesteko, etortzen den auto bakoitzeko 2 euro kobratuko dira.

Bertalde, urtero bezala, bi zaindari aukeratu ziren, eta Aste Santuan hasi zuten lan aldia, aurten Urrozkoari egokitu zaiolarik kontratu luzea.

Marvin taldearen bideoklipa

Bistan da Leurtzako ur-

tegien eremuak bisitari mota ezberdinak erakartzen dituela, eta honen erakusgarri, martxoaren 24an rock talde gazte bat izan zen bideoklipa grabatzen. Iruñeako laukotea, Marvin izena duena, irudiak eta soinua grabatzen aritu zen, eta euren hitzetan, gogo haundiak dituzte han grabatutakoa erakusteko, leku zoragarria eta ezin hobea irudituta baitaie lortu nahi zutenerako. Dena aurreikusita bezala joanez gero, apirilaren 27an estreinatuko dute bideoklipa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Iruñeako Marvin laukotea Leurtzako grabaketan.

ARESO

JENDARTEA → GURASO ELKARTEAREN ESKUTIK

Ludotekaren faltan herri kirol saioa izan dute haurrek Aste Santuan

Juana Mari SAIZAR

Aste Santuko oporraldian, beste urteetan ludoteka izaten zuten eskolako umeez, baina diru murrizketak direla eta aurten ez dute izan. Horren hutsunea beteharian, Guraso Elkarteak arratsalde batean herri kirol jardunaldia antolatu zuen eta ondoren indarrak berritzeko merienda goxoa. Talde ederra bildu zen.

Filma eta afaria Harrerarekin

Harrera taldeak ekitaldia egin zuen herrian martxoaren 15ean. Lehenik filma ikusi ahal izan zen Herriko Etxeko

lehen solairuan eta gero afaria Pake Toki elkartean. Gatazka politikoa- ren ondorioz izan eta diren preso eta erbestera- ratu ohiei egungo gizar- tean duintasunean bizi eta egokitu daitezzen behar duten laguntza eskaintzen die Harrerak.

Mus txapelketa

Apirilaren 27an jokatu da herriko mus txapelketaren finala. Hamar bikote ari dira aurtengo txapelketan, eta hau idazterakoan ez dago batere argi nor sailkatuko den finalerako. Pake-Toki elkartean egingo den afariaren ondotik jokatu da finala.



ARGAZKIA: JAIONE OLAZABAL

Zuhaitzaren Eguna ospatu dute Urteaga inguruan

Guraso Elkarteak antolatuta Zuhaitzaren Eguna ospatu da beste urte batez Urteaga inguruan. Umeez bere zuhaitza landatu zuten, herriko langileak aurretik egindako zuloetan, eguraldi ederra lagun zutela. Lan egin eta gero, merendua eta elkarrekin jostatzeko aprobetxatu zuten, mendiak ematen dituen aukerekin.

Larunbat Santuko elizkizuna eta emakumeen afaria

Aste Santua ospatzeko hainbat aukeren artean daude elizkizunak. Larunbat Santua egun garrantzitsua da fededunen artean. Ura eta argia bedeinkatu berria tartean, argazki- an azaltzen den beza-

laxe, aldea ere oso polita agertu zen, festa ederrena ospatzeko prest.

Beste aldetik, ohiturari eutsiz, Larunbat Santuan herriko emakumeek afaria antolatzen eta egiten segitzen dute. Afaldu ondoren, giro ederrean dantaldia izan zuten, Gorka eta Itxasorekin.



GIZARTEA

KOMUNIKABIDEAK → 165 BIKOTE ARITU DIRA

Azpilkuetarrek irabazi dute komunikabideen aldeko mus txapelketa

TTIPI-TTAPA

Eskualdeko muslarie- n *Champions*-a jokatu zen apirilaren 6an Sunbillako Ulibeltzak elkar- tean. Xaloa, Xorroxin eta Ttipi-Ttaparen aldeko mus txapelketak jokatu ziren herriz herri martxo- an eta herri bakoitzeko txapelkunek hitzordua izan zuten Sunbillan. De- netara, 165 bikotek par-

te hartu dute eskualde- ko komunikabideen al- deko mus txapelketa ho- netan eta beraz, berai- en egitasmoekin aitzie- nera egiten lagunduko duten 3.300 euro inguru bildu dituzte.

Sunbillan 21 bikote aritu ziren era final han- dian, Azpilkuetako Joxe Mari Azkarragak eta Ju- an Irungarai irabazi egin



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Azpilkuetako Azkarraga eta Irungarai txapelkunak eta Almandozko Oskoztarrek.

zieten Almandozko Jo- se Luis Oskoz eta Lo- renzo Oskoz-i. Txapela

eta bertako produktuez osatutako zarez gain, Joxelu Retegijk espres-

ki egindako garaikurrak jaso zituzten saritzat irabazleek.

OSPAKIZUNAK → APirilAREN 6AN

Barrikoteak eta Gau Tropikalak bat egin dute Gaztetxean

Ezker abertzaleak eta Gazte Asanbladak antolatutak

TTIPI-TTAPA

Ezker Abertzaleak urtero antolatzen duen barrikotea alde batetik eta Gazte Asanbladak prestatutako Gau Tropikalak bestetik. Biak elkartu, nahasi eta edeki atera den kimikako esperimendu bat balitz

bezala, giro paregabea sortu zen apirilaren 6an Gaztetxean. Adin guzietako gazteak elkarrekin dantzan eta parrandan, bertsotan, sagardoa nahiz mojitoari tragoa eginenez, berdin trikitixa edo saltsaren erritmora mugituz...

Azken urteetan frontoian egin zen barrikotea, baina jende gutti xamar apuntatu zela eta, berriz ere gaztetxearen goxotasunera bueltatu da eta apustu egokia izan dela esan daiteke.



ARGAZKIA: NAIARA AROZENA

Giro paregabea izan zen gaztetxean.



ARGAZKIA: IGOR ELIZEGI

Herria ezagutzen segitzen dute Umore Onako mendizaleek

Umore Onako mendizaleek herria ezagutzen segitzen dute. Martxoaren 24an egin zuten hirugarren mendi buelta eta eguraldi zoragarria lagun zutela, 38 lagunek egin zuten 4 orduko buelta. Hurrengoa apirilaren 28an egingen dute. Goizeko 9:00etan herriko plazatik abiatu eta Labeko borda, Petanxlaia, Etxolla, Txakurtxoko borda eta Kaleko bordan barna berriz ere herrira itzuliko dira.



ARGAZKIA: IGOR ELIZEGI

Turroi naturala egiteko ikastaroa Umore Onaren eskutik

Umore Onak antolatuta Etxarritik Txomin etorri zen turroi naturala nola prestatzen den erakustera. Etxeko produktu naturalekin (intxaurrak, urrak, ezti...) egin zuten turroia. Parte hartu zutenek aipatu digutenez, «lan pixka bat dauka baina merezi du, turroi naturala eta oso goxoa. Ederra zegoen!».

bortzirudi

ttipi txartela

%5eko DESKONTUA

5€tik gorako gastuan, kopietan, enkuadernazioetan, eta inprentako zenbait lanetan (argibideak dendan)

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittoria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

LEITZA

KIROLA → AURRERA ELKARTEAK ANTOLATUA

XXXV. Herri Krosa egingen da apirilaren 27an

17:30ean hasiko da laisterkaldia

JM BARRIOLA

XXXV. herri krosa antolatu du Aurrera Kirol Elkarteak apirilaren 27rako. Lasteketak, 10 kilometroko luzera du eta 17:30ean hasiko da. Izen emateko epea hileren 25ean itxiko da. Kategori ezberdinak hauek izanen dira: benjaminak 800 metro, alebinak eta infantilak 2.500 metro, kadeteak eta juniorrak 5.000 metro, senior eta beterranoen artean gizonezkoek 10.000 metro eta emakumezkoek 5.000 metro laisterka egin beharko dituzte. Ondoren kiroldegian dutxatu ahalko dira guztiak. Egun hortan bertan, iluntzean Aurrerako Elkartearen afaria izanen da menu goxoarekin. Afaldu nahi duenak Maimur liburudendan hartu behar ditu txartelak 18 eurorotan.

Antonio Lizartzak seme kuttuna izateari utzi dio

Pasa den martxoaren 26an izandako Udaltzarrean, 1945. urte-

an Udalak, Antonio Lizartzari "Herriko seme kuttuna" emandako izendapena bertan behera uzteko akordioa hartu zuen, Bilduko hautetsien aldeko botuekin eta DNE eta UPNko hautetsien aurkako botuekin.

Antonio Lizartzak 1936ko estatu kolpea prestatzen paper nabarmena izan omen zuen eta ondoren izandako gerra bukatuta, errepre-sioa antolatzen ere nabarmen aritu omen zen. Mozio berean, Nafarroko udal guztiak bide hau jorratzera gonbidatu dituzte, Nafarroako Gobernua eta Estatuko delegaritzari, horrelako izendapenak eta garai hartako sinboloak kentzeko eskatu zaio.

Sutarako egur loteak eskatzeko epea zabalik

Urtero moduan Udalak sutarako egur loteak markatu aurretik, eskaera epea ireki zuen. Aurtengoan berrikuntza bezela, zerbitzu berezi bat eskaini nahi dute. Orain arte zuhaitzak mendian markatu eta loteak banatzen zirenean, norbera arduratzen zen, hauek bota, txiki-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurrera elkarteak antolatutako herri krosak 35. edizioa beteko du apirilaren 27an. Iaz baino eguraldi hobea izango al dute korrikalariek!

tu eta etxeratzeaz. Eskariaren arabera, jarri nahi den zerbitzuarekin, basolariak botako dituzte eta etxeraino edo kargalekuan utzi enborrak. Auzolan egunaz aparte, zerbitzu hau martxan jartzeko nahiko eskari baldin bada, herriraino eramatea nahi lukeenak Tonako 30 euro inguru ordainduko luke eta aldiz mendian kargalekuan uztea nahiko lukeenak, Tonako 12 euro inguru. Eskatzeko epea apirilaren 30a arte da, eta zerbitzu honetan interesa duenak udaletxean eman behar du izena.

Maxurrenea Herrintzat ekimena Nafarroako Parlamentuan

Herritarren ekimen honekin, Maxurrenea, kultur etxea bilakatzea eskatzen dute orain hamar urteko eskaera be-

rrituz. Aurten, Nafarroko Gobernuak barne ministroarekin duen kontratua errebisatu behar duenez, etxea herriari itzultzeko aukera ezin hobea dela uste dute. Horregatik, kanpaina jarri zuten martxan. Horren baitan, apirilaren 22an iluntzeko 8:00etan herriko plazan kontzentrazioa egitera deitu dituzte herritarrak *Maxurrenea herrintzat* lemapean. Apirilaren 24an Nafarroko parlamentuan lan saioa egingen dute, Maxurreneko egoera azaldu eta herriari itzultzeko eskaera egingez. Aurretik, alderdi ezberdinetako ordezkariekin, bilduko dira gaia azaldu eta babesa eskatzeko. Sinadura bilketa ere egiten ari dira egunotan. Herriko ha-inbat lekutan sinatzen ahal da eta kros egunean eta Kultur Asteko bi igandetan ere izanen da horretarako aukera.

Emakumeentzako bioenergetika tailerra

Gizarte zerbitzuak antolatuta, apirilaren 27an, goizeko 9:30etik 12:30era bioenergetika eta ahalduzko tailerra egingen da kiroldegian, Teresa Martinez Peñalba eta Koro Ormaetxea Bello psikologoen eskutik. 15 urtetik gorako emakumei zuzenduta dago tailerra. Interesa dutenek aurretik eman behar dute izena 948510840 telefonora deituz. Bioenergiaren helburua gorputzaren kontzientzia hobetzea eta gure onurarako lantzea da, bakoitzak bere burua ezagutu, disfrutatu, mugak jarri, gaitasuna sentitu, tentsioak askatu... emozioak lantzea. Norberaren gaineko ezagutza zabal-tzen ikasteko bitartekoak emanen dituzte ikastaroan.

948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net

Kartelak, fakturak, kartazalak, bisita txartelak, egutegiak...

inprimitzen ditugu

UDALA → MARTXOAREN 22KO BATZARREAN

6,8 milioi euroko aurrekontua onartu du Balleko Etxeak

322.080 euro bideratuko dira inbertsioetara

TTIPI-TTAPA

Balleko Etxeak 6.811.160 euroko diru sarrera eta irteerak izanen ditu 2013. urtean, martxoaren 22ko udal batzarrean Bildu (5), Baztango Ezkerra (2) eta Nafarroa Bai-Aralar (1) taldetako zinegotzien aldeko botuekin onartutako udal aurrekontuaren arabera. UPNko lau zinegotziek kontra bozkatu zuten.

Udal aurrekontu orokorren baitan, Baztan lkastola (592.504 euro), Francisco Joaquin de Iriarte Zahar Etxea (110.000 euro) eta Giltxaurdi enpresa publikoarena (351.000 euro) ere onartu ziren.

Murrizketarik handiena inbertsioen atalean eman da. Zehazki 322.080 euro bideratuko dira inbertsioetarako. Amaierako ur depositoa egiteko 16.000 euro bideratuko dira eta

oihan lan ezberdinetarako 40.000 euro aurrakusiak daude. Gastu gehien duten eskola ttipietan biomasa galdarak instalatzeko 25.000 euro beharko dira eta 26.000 eskoletan obrak egiteko. Bideak eta pistak egokitzen 54.700 euro inbertituko dira eta Gartzaingo batzarre gela eraikitzeko 30.000 euro, bertze lanen artean.

Udalaren zorra azken bi urteetako amortizazioei esker 1.200.000 euroan jautsi da eta urte hasieran 7.752.674 eurokoa zen.

Ernai aurkezpena

Ezker abertzaleko gazteak biltzen dituen Ernai talde berriaren aurkezpena egiten ari dira kuarterka. Basaburua eta Herbehereko aurkezpenen ondotik, apirilaren 19an, 20:00etan Baztangoizakoa egingen da Amaiurko Otxondo gelan eta Elizondokoa plazan egingen da hilaren 20an, 18:00etan. Gero besta izanen da triki-poteo eta kontzertuekin.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Alkate berriekin lehenbiziko Batzar Orokorra

Ilbeltzean egindakoaren ondotik, urteko bigarren *Junta Generala* egin zen apirilaren 2an, baina honetan, herrietako alkate berriek ere parte hartu zuten lehen aldiz. Hurrengo bi urtetan junta osatuko dutenak ageri dira argazkian.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Erreka bazterrak egokitu dituzte urritasuna duten langileek

Elizondoko Giltxaurdiko meandroan erreka ingurumen eta paisaia aldetik egokitu ditu Tasubinsako Zerbitzuen atalak. Zazpi langile aritu dira lan honetan, bortz urritasunen bat dutenak eta bi monitore. Gehien bat, meandroa zaborrez eta sasiz garbitu, landaredi arrotza kendu eta bertako zuhaitzak eta landareak sartu dituzte. Ekimena, Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak bultzatu du, Gana enpresa publikoaren bitartez eta La Caixaren Gizarte Ekintzaren finantziazioarekin. Lanean aritu diren Tasubinsako zazpi langileak berdeguneen egokitzapen lanetan espezialduak daude eta gisa honetako hainbat lan egin dituzte.

LARRALDEA
eta
LINDOURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa - LENAROI | 948 452121 - 626 494317
LINDOURRENBORDA | Nabaz auzoa - LESAKA | 948 637212

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagaiak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → 1879. URTEAN LEHENBIZIKOAK EGIN ZIREN ELIZONDON

Lore Jokoen egun handia apirilaren 21ean ospatuko da Iruritan

45 baztandarrek parte hartu dute literatura lehiaketan

TTIPI-TTAPA

1879. urtean Hego Euskal Herriko lehenbiziko Lore Jokoa Elizondon ospatu zirela gogoa izanik, aurten egun hura gogoan, gauza bertsua egin nahi izan dute Baztandarren biltzarra elkarteak, Dorrea Elkartek eta Baztango Kultura Batzordeak elkarlanean.

Bi mende berandua go garai hartan bizkarezurra izan zen literatura lehiaketa antolatuta da, 1879. urtean izan zen gai berarekin: euskaldunen gauzarik maitteena. Aski arrakastatsua izan da lehiaketa, 45 lagunek parte hartu baitute adin kategoria ezberdinetan.

Apirilaren 21ean Iruritan antolatuta den egun guztiko bestan aurten go sarituek beraien la-



UTZITAKO ARGAZKIA

Lore Jokoa antolatu dituzten kultur taldeetako kideak, Iruritako alkatearekin eta udal agintariekin aurkezpenean.

nak irakurtzeko aukera izanen dute.

Literatur lehiaketa ez ezik ondoko egunetan hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Egunotan Lore Jokoen erakusketa ikusgai dago Iruritako Jauregian. Bertan, 1879. urtean Elizondon ospatu ziren Lore Jokoa eta poema sarituen erakusketa ez ezik, Hendaian dagoen Abbada Jauregitik ekarritako afixak ere erakusgai daude.

Apirilaren 12an berri, Rosa Miren Pagolak solasaldia eskaini zuen *Elizondoko Lore Jokoa* gizon haundi

bat: *Bruno Etxenike* izenburupean.

LORE JOKOEN EGUNA APIRILAREN 21EAN

Baina Lore Jokoen Egun handia apirilaren 21ean izanen da eta egun guztiko besta egitaraua prestatu dute Iruritan.

11:00etan txapelketako laxoa partida jokatuko dute Irurita A eta Arraioz B taldeek erreboteko plazan eta laxoari buruzko erakusketa gizarte bilgunean ikusgai izanen da.

11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara Jauregia ire-



UTZITAKO ARGAZKIA

Xorroxinerako sarbidea egokitu du Udalak

Xorroxin ur-jauzia Baztango interesgune nagusietako bat dela kontuan hartuta, Udalak ur-jauzirako sarbidea egokitu berri du. Horretarako, 3 aparkaleku egokitu eta seinalizatu dituzte Erratzun. Azken aparkalekuan, Xorroxinerat joateko segitu beharreko oinezkoendako ibilbidea seinalizatuta dago. Erratzutik Gorostapolorat doan errepiderako sarrera soilik berridatzen dela eta bertan ibilgailuak geratu edota aparkatzea debekatuta dagoela gogorarazi dute.

kita egonen da, erakusketa ikusteko.

12:30ean Euskal dantzak eskainiko dituzte Iruritako dantzariak herriko plazan.

17:00etan poema errezitaldia eskainiko da Jauregiako lorategian, musikarekin alaituta. Hain zuzen, 1879ko olerki sarituen eta 2013ko literatura lehiaketa-

ko irabazleen lanen aurkezpenean egingen da.

18:00etan bertso saioa eskainiko dute Andoni Egaña eta Uxue Alberdi bertsolariek, Fernando Anbustegi gaitzartzaile dutela.

Euriarekin, goizeko ekitaldiak Aranabia pilotalekuan eta arratsaldekoak gizarte bilgunean egingen lirateke.

Rugbyaren gaupasa

Baztan Rugby Taldeak antolatutako gaupasa apirilaren 20an egingen da Larraintzarren. 21:30ean aratze-txerok afaria egingen da eta kantu zaharrak eta bertzelako sorpresak ere izanen dira. 00:30ean Trikidantz taldea ariko da eta ondoren dj AK eta DJ Purin izanen dira gau osoan karpan. 500 euroko bono bat eta eskualdeko produktuak ere zozketatuko dira.

Bierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Burriotz auzoa - Tfnoa: 948 592 043
ORNOZ · MUGAIRI

Ibon Urtiaga
Fisioterapia Zentrua
www.fisioibon.com
948 250 221
Erletokieta, 9 · IRUNEA

FOTO MENA BIZONDO
%10eko DESKONTUA kopia digitalean
+ttipi bartela

HEZKUNTZA → MARTXOAREN 19 ETA 20AN

Elizondoko Lanbide Eskolako Enpresa Simulatua Pragako Nazioarteko Azokan izan da

Europa osoko bertze 160 enpresen esperientzia ikasi dute 6 ikaslek eta irakasle batek

dute Goi Mailako Administrazioa eta Finantzak taldeko zenbait ikaslek. Pragako hirian martxoaren 19 eta 20an ospatu den Enpresa Simulatuen Nazioarteko Azokan parte hartu dute. Bertan Europa osoko 160 enpresa simulatu bildu dira, zehazki Txekiar Errepublika, Austria, Errusia, Errumania, Eslobakia eta Nafarroatik joandakoa. Urki Munarriz, Stephanie Tubón, Gabriela Pricop, Belentxu Cebrian, Ane Garmendia eta Miriam Martín, Pragan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Urki Munarriz, Stephanie Tubón, Maite Ariztegi (irakaslea), Gabriela Pricop, Belentxu Cebrian, Ane Garmendia eta Miriam Martín, Pragan.

phanie Tubón, Gabriela Pricop, Belentxu Cebrian, Ane Garmendia eta Miriam Martín ikasleak eta Maite Ariztegi irakasleak egin dute bidaia, Lekaroz-Elizondoko Guraso El-

kartearen laguntzarekin. Pragan, Bartzelonako Enpresa Simulatuen Azokan parte hartu zuten eta aurten pauso bat haratago eman eta Europa mailan jarduerak komertzial hiru antolatzen

den ikusteko aukera izan dute. Honekin hiru urteko aldia da Lanbide Eskolako ikasleak Europara joaten direla, aitzinetik Salzbουργon (Austria) eta Ganten (Belgika) egonak dira.

ABELTZAINZA → APIRILAREN 5EAN

15 buru aurkeztu ziren Elizondon Udaberriko Feriako ahari lehiaketara

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 5eko Udaberriko Feriak neguko aurpegia izan zuen Elizondon, baina halere behi eta zaldi azienda batzuk eta 25 bat ardi eta ahari eraman zituzten Merkatuko Plazara. Azken hauetatik 15 aurkeztu ziren lehia-

ketara eta horien artean, Arraiozko Indakoko Felisa Ugartek eta Irurritako Gernuxarreko Miguel Angel Maritorenak aurkeztutakoak izan ziren onenak. Arraiozko Indakokoak mutur gorrien artean lortu zuen lehen saria, 75 euro eta kaikua. Arraioz-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Ahari lehiaketako saridunak, udaleko eta Bertizko Partzuergoko ordezkariak.

ko Sagrario Urroz eta Irurritako Felix Alemanen ahariak ere lortu zuten saria. Mutur beltzen artean, berriz, Irurritako Gernuxarreara joan zen lehen saria eta Erratzu-

ko Soledad Iturbide eta Almandozko Norberto Agerreren ahariak ere lortu zuten saria.

Eskulangielen azoka Merkatuko Plazako gorapean egin behar izan

zen, euriaz babesteko, baina halere animazio handia izan zen. Baztan-zopak banatu ziren eta Baztango dantzari ttiekiek ere bere emanaldia eskaini zuten.



BAZTAN

GIZARTEA → APIRILAREN 9AN EGIN ZEN EPAIKETA

Ernesto Prat-en auzia epaiaren zain gelditu da

500 bat lagun bildu ziren Elizondoko manifestazioan

TTIPI-TTAPA

Ernesto Prat Urzainki elizondarraren kontra Madrilgo Entzutegi Nazionalean apirilaren 9an egindako epaiketa sententziaren zain gelditu da. Fiskalak Ekineko kidea dela frogatutzat eman ondotik Ernestoren erruduntasuna aldarrikatu zuen. Defentsako abokatuak berriz errugabetasuna eskatu zuen, atzoko epaiketan Ernestoren kontrako testigantzak torturapean lortu zirelako frogatu

zirelako eta polizien atestatuan agertzen ziren dokumentuen: historiko materialen, agendako hitzorduen, eskutitzen... zentzua guztiz bertzalakoa zelako eta, horregatik, horrietatik ezinezkoa zelako Ekineko kidea izatea ondorioztatzea. Defentsako abokatuak zorrotz aritu zen auziko bertze atxilotuekin izan diren tortura salaketak azalerraten, modu horretan, instrukzioaren ardura zuten guardia zibilek torturak eta tratatu txarrak saihesteko bitartekoak erabili ez izana agerian utzi zuen. Auziko sententzia bi aste eta bi hilabeteren artean aterako da.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Maria Jesus Muñoz eta Oscar Elizetxe omendu ditu Udalak

Balleko Etxean lanean 30 urte baino gehiago eman ondotik, ongi merezitako omenaldia jaso zuten apirilaren 5ean Maria Jesus Muñoz idazkari ohiak eta Oscar Elizetxe albienteak, udal ordezkarien eskutik. Lore-xorta eta oroigarriak eman zizkieten omenduei. Maria Jesus Muñoz idazkaria Villafrancakoa da sortzez, baina gazterik etorri zen Baztanera eta hemen egin du bere lan ibilbidearen zatirik handiena. Elizondoko Eskermean sortua da Oscar Elizetxe. San Francisco Javier ikastetxe publikoan hasi zen lanean eta gero Balleko Etxean.

Ernestorekin elkartzuna adierazteko 500 bat lagun bildu ziren apirilaren 7an Elizondon egindako manifestazioan, *Epaiketa gehiagorik ez! Eskubidezibil eta politikoen alde Ernestorekin elkartzuna* goiburupean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Apirilaren 7an egin zen manifestazioa Elizondon.

URDAZUBI

GIZARTEA → BARNEKO JANGELAZ APARTE TERRAZA DOTOREA ERE BADU

Nikolaurenea jatetxea zabaldu dute Aste Saindu bezperan

60 lagunendako jateko tokia eskaintzen du plazan

TTIPI-TTAPA

Aste Saindu bezperan, martxoaren 27an edeki zuten Nikolaurenea jatetxea Urdazubi-

ko plazan. Beraz, hemendik aitzinera, 60 lagunek otorduak egiteko aukera eskainiko dute bertze jatetxe bat izanen da herrian.

Aste osoan irekia dago Nikolaurenea, asteazkenetan izan ezik. Asteartez, bazkaltzeko menua eskaintzen dute 13,5 euroan eta afaltzeko aitzinetik eskatu

behar da. Asteburuetan bazkariak eta afariak eskainiko dituzte, kartan edo 25 euroko menu berezian. Gainera, amorrainarekin bertze menu berezi bat eskaintzeko asmoa ere badutela aipatu digu Rosa Goietxe arduradunak.

Barneko jangelaz gain, terrazaz dotorea ere badu, plazari begira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Nikolaureneak eguneko menua eskaintzen du astetartean.

Nafarroako Mendialdeko garapena da gure apustua

Formakuntza eta coaching-arekin bideak zabalduz

Arlo guztietan aldaketa handiak gertatzen ari dira azken urteetan. Errealitate berri honek modu desberdin batean pentsatu, jokatu eta aurrera egiteko bideak bilatzera garamatza. Birziklatu eta formatu beharra dugu, ez soilik titulu bat lortzeko, aurrerapauso pertsonal eta profesional gisara ere bai. Formakuntza ez da garai edo adin zehatz batzuetara mugatzen eta maila pertsonalean, taldean, on-line, enpresen barruan, elkartean... gauzatu liteke. Gainera, gure ingurune sozio-ekonomikoa ezagutzeko bidea eman eta ekimen profesional eta sozialak bultzatzeko tresna eraginkorra da.

Maite ARIZTEGI



Lanbidea: Elizondoko IESeko zuzendaria
Esperientzia: Enpresa simulatuak sortu dituzte ikasleak enpresa kudeaketan trebatzeko. Lehen lan esperientzia eskolan izatearen parekoa da hori.

Zer dela eta jarri zenuten enpresa simulatua martxan?

Kezkatuak ginen ikusten genuelako ikasleek ez zutela moduluen artean loturarik ikusten. Baina gabezia nagusia zen ikasleak egoten zirela hilabete eta erdi eskolan ikasten eta gero enpresetara joaten zirenean nahiko galduak sentitzen zirela. Nolabait landu behar genuela ikusi genuen. Cederna-Garalurrek bazuen enpresa simulatu bat Iruñeako Unibertsitate ikasleekin eta adostu genuen beraiek lehenengo urtean laguntza teknikoak ematea. Elkarlanean enpresa simulatua sortu genuen.

Zer da enpresa simulatu bat?

Kudeaketa guztiak erreala dira, baina ingurune guztia simulatua da. Produktua ez da fisiko ki existitzen baina balore errealean oinarritzen gara. Erreferentzia eta kodigo batzuekin egiten dute lan. Albaranak egin, kontabilizatu, telefono deiak egin... ikasleei beren lehendabiziko lan esperientzia eskaintzen diegu eskolan.

Nolako harrera izan du proiektuak?

Oso motibatua daude, enpresa batean lan egitea bizi egiten dutelako. Ikasleek lotura ikusten dute lanean. Adibidez, nabari dute nominak ongi egiteak gero kontabilizatzeko garaian gauzak zenbat errazten dituen. Gerora beraien lan esparrua izanen dena ezagutzen dute.

Etorkizunerako zein helburu dituzue?

Simulazio metodologia honekin jarraitzea. Eskolatik kanpo egiten diren jarduerak ere mantendu nahiko genituzke, Bartzelonara joan eta baita Europa mailan egiten diren azoketara ere. Datorren urtean eskualdean Nafarroako enpresa simulatuen azoka antolatu nahi dugu.

Jaione ALDAIA



Lanbidea: Co-change, executive & live coach.
Esperientzia: Helburu edo gaitasun zehatz batzuk lortu nahi dituzten pertsona edo taldeei laguntza eskaintzen die coaching metodoaren bidez.

Zergatik erabaki zenuen coach izateko formatzea?

Ekonomista ikasketak egin ondotik, hamairu urte neramatzan enpresa batean lanean. Sekzio desberdinetan aritu nintzen, baina betidanik jendearekin harreman zuzena edukitzea izan dut gustoko. Bezeroekin konexio berezia lortzeko gaitasuna nuela nabari nuen eta garapen pertsonala asko landu izan dut betidanik. Gustoko bi arloak lotu eta coach izatea erabaki nuen.

Zein da coach baten egitekoa?

Pertsona edo talde bat non dagoen ikusi eta nora iritsi nahi duen aztertzen dugu eta helburu horiek lortzeko bidean laguntzen diegu. Pertsona guztiak dituzte gaitasunak nahiz eta batzuetan konziente ez izan. Gehienbat galdera bidezko prozedura erabiliz, gaitasun horiek deskubritzen laguntzen diet nik.

Zergatik da garrantzitsua coachinga?

Norberaren lanketa pertsonalean laguntzen du, bezeroak nahi dituen helburuak lortzeko auto-konfidantza landuz. Honela, aldaketei aurre egitea errazten du, konpromezuz eta norberaren bizitzaren arduradun izanez. Perspektiba desberdinak aztertzen laguntzen du.

Etorkizunean zer aldatu beharko litzateke?

Azken urteetan epe laburreko emaitzak bilatu izan dira eta nabarmena da ez dela aukera zuzena izan. Berehalako emaitzak lortu nahi horretan, epe luzeko lorpenei atea itxi diegu. Etorkizunera begira, pentsamendu aldaketa funtsezkoa da, noraezean goaz bestela. Pertsona bakoitzak dituen indarguneak potentziatu eta ahulguneei buelta ematea da etorkizun hobea eraikitzeke modua.

Jabier IRIARTE



Lanbidea: Informatikako teknikaria.
Esperientzia: Informatika ikastaroak ematen ditu, mendialdeko herritarrei teknologia berrietan formakuntza eskaintzeko helburuarekin.

Noiz hasi zinen formakuntza lanetan?

2006an Etxalarko udalak eta Cederna-Garalurrek telezentro bat sortzeko hitzarmena sinatu zuten. Niri mendialdeko emakume eta jubilatu informatika ikastaroak eta hitzaldiak ematea eskaini zidaten. Dohakoak ziren ikastaroak eta arrakasta izan zuten. Hortan aritu naiz orain arte. Hemendik aurrera zailagoa izanen da eskaintza horri eustea Nafarroako Gobernuak diru laguntzak murriztu dituelako.

Zer erakusten da ikastaroetan?

Hasteko informatikako lehenengo pausok ematen zituzten ikasleek 20-25 orduko ikastaroetan. Sistema pixka bat ezagutarazi eta oinarri bat ematen zitzairen, interneten, posta elektronikoa erabiltzen... Horretaz gain, tailer konkretuak ere egiten ziren zerbait bereziagoa ikasi nahi zutenekin.

Zergatik da beharrezkoa formakuntza bultzatzea?

Gauzak ikastea norberaren burua garatzea da. Jendeak pauso handiagoak emateko aurreneko pauso txikiak izan litezke ikastaro hauek, proiektu berriak martxan jartzeko beharrezkoa duten azken bultzada. Garai berrietara egokitu beharra dagoela uste dut eta horien artean teknologia berrien ezagutza oinarritzkoa da.

Etorkizunera begira zein da erronka?

Kontzientzia aldaketa bat beharrezkoa da, formakuntza bultzatu behar da eta herritarren interesa bultzatu. Aurreiritzi aunitz gainditu behar dira. Adina jartzen dute batzuk aitzakiazat baina gogoia eta borondatea da behar diren gauza bakarrak.

GARAPEN AGENTEAK

Arantxa Arregi, 606 43 13 57 / bidaso@cederna.es • Izaskun Abril, 606 40 86 13 / baztan@cederna.es • Elena Irigoien, 617 60 93 28 lekunberri@cederna.es

Cederna Garalur Alkaiaga Industrialdea, Alasta 2B • Ordutegia: 09:00 / 16:00 • 948 62 51 22 • bidaso.admon@cederna.es



ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → BI URTETIK BEHIN EGITEKO KONTUA AIPATU DA

Aurtengoan ez da Sorginaren Eguna ospatuko

Margari eta Koro

Ekainaren hondar aldera izaten den "Sorginaren Eguna" ez da aurtengoa egingen. Bilkura bat egin ondotik, ikusi da aldaketa batzuk behar dituela.

Hori dela eta, prestatzeko denbora gehiago hartu nahi izan da, ideia berriak biltzeko. Bi urtetik behin egiteko kontua ere aipatu zen.

Elkartasun tapoiak

Bai Zugarramurdi baita Urdazubiko eskolatan plastikozko tapoiak biltzen ari dira. Eritasun berezi bat daukan Iruñeko haur batentzat dirua biltzea da helburua. Haurrak Nerea du izena eta 18 hilabete ditu. Informazio gehiago hemen ikus daiteke: www.ayudamosanerea.org

Ekimen honetan Baztan, eta Zugarramurdi-Urdazubiko eskola ttikiek parte hartzen dute. Zuzendari baikoitzak Iruñetara eramanez, eta bildutako tapoiak, eta handik denak Iruñera eramanez dituzte. Beraz, ez bota plastikozko tapoiak. Bil-



UTZITAKO ARGAZKIA

Iruña eta Idoia Neska Korrikan

Apirilaren 7an Idoia eta Iruñek parte hartu zuten Azkaingo 9. Neska Korrikan. Halako gisako lasterketan parte hartzen zuten lehenbiziko aldia izan da eta arras kontent gelditu dira, 206 partehartzailetatik 160 eta 167garrenak gelditu baitira. Eta horretaz gain Idoiari ardigasna eta erreximenta pote bat tokatu zaizkio egindako zozketan.

du, eta Nerea sendatzen lagunduko duzu.

Komunikabideen aldeko mus-a

Ttipi-ttapa, Xaloea eta Xorroxin laguntzeko as-

moarekin, martxoaren 23an hamabi bikote aritu ziren mus txapelketan. Txapelidunak Alfredo eta Jose Luis izan ziren, eta azpitxapelidunak, Manu eta Juano.

GIZARTEA

ARKUPEAK

Gimnasia Eguna ospatu zuten erretiratuek apirilaren 4an Beran

TTIPI-TTAPA

Soinketa edo Gimnasia Eguna ospatu zuten Arkupeak elkarteko erretiratuek apirilaren 4an Berako Toki-Ona kiroldegian. Eguerdian egin zuten erakustaldia 50 bat bazkidek. Talderik jendetsuena Leitzakoa izan zen, 24 lagunekin; Urdazubitik 2 joan ziren, Elizondotik eta Goizuetatik hamarna, Doneztebetik 6 eta Iturengo bakarra. Denek Patxi Txokarro zuten monitorea. Gimnasia eta yoga erakustaldia egin ondotik, kirolariak eta laguntzaileak autobusak hartu eta Zubiondo jatetxera joan dira bazkaltzera. 150 bat lagun bildu ziren. Bazkalondoa dantzaldia izan zuten eta arratsean norbere herrira bueltatzeko autobusak hartu zituzten.

Mus txapelketa

Martxoaren 21ean jokatu ziren Hondarribian Arkupeak elkarteko mus txapelketaren azken partidak. 32 bikote elkartu ziren eta azkenean, Elizondoko Jose Maria Mujika eta Juan Angel del Moral suertatu ziren txapelidun, finalean Lorentxo Agirre eta Antonio Arburuari irabazita. Hirugarren postua Daniel Iparragirre eta Santiago Olasagastirentzat izan zen eta laugarrena Gemma Gamio eta Pakita Mikelarena. Beste aldetik, erretiratuen elkartea bere bidaia eta mendi ateraldiekin segitzen du. Mendi taldek Uitziko gaina eta Ireber arteko ibilaldia egin du hilaren 25ean, Lekunberrin bazkalduz.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Berako erakustaldian parte hartu zuten erretiratuek.

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zuzitx Asegururak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Norma eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria
- Baseri, bodega, pisu, etab... salmenta eta alkatariak
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



Martiko
Pol Zelai, s/n.
31780 Beran, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Hostaleria aditua eta erretal



DENDA ORDUTEGIA:
astelehenetik
ortziralerara
08:00etatik
17:00etara

KULTURA → LITERATURGINTZA

Adema-Zaldubiren zazpigarren eta azken liburukia plazaratu du Henri Duhauk

Sarako Idazleen Biltzarrean aurkeztu zuen

Franck DOLOSOR

Sarako hogoita hamargarren idazleen biltzarrean senpenterrek toki zabala izan dute aurten ere. Hantxe ziren, Auxtin Zamora, Joxet Lahet Juzan, Mixel Mendiboure, Jean Sauvaire, bertzeak bertze eta bistan dena Henri Duhau Adema Zaldubiren zazpigarren eta azken liburuarekin, Euskaltzaindiak plazaratua. Badira zonbait urte gure herrian finkatua den beskoiztarrak Zaldubiren lanak ezagutzeko parada izan duela elizgizon jakintsuaren ilobei esker. Duhauk lan gaitza bezain paregabea egin du maila haundiko

idatziak berriz agertzeko. Lan hortan loriatu da. Saran eskaini zuen mintzaldia zioen testu mamitsuenak zazpi liburuki hauetan daudela. Azkenari "Zazpiak bat" deitzen diote zazpigarrena delako, baina baita aldarrikapen hori edo horren erranahia orrialde hauetan indartsu errepikatzen delako ere, bereziki 'Mendiko Artzain Beltxaren' bertsean.

Henri Duhauk azpimarratzen du holakoak idazten zituela Zaldubik bere denborako apez argituenetarik zelarik eta gainerat duela jadanik 150 urte! Euskal Herriaren burujabetasun aldarrikapena ez dela hasi duela borts hamarkada frogatzen dute Senperen idatziak izan ziren testu horiek. "Zazpi Euskal-herriek bat egin dezagun" kantu famatuaren ondotik



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Hitzaldi hunkigarria eskaini zuen Henri Duhauk Sarako Idazleen Biltzarrean.

«Frantziatik bereiztea» ere aipatzen duela Zaldubik biziki ohargarria zaio Henri Duhauri.

Orain arte agertu ziren sei liburukiak eskuizkribuetarik etortzen zirela bakarrik dio beskoiztar-senpenterak.

Zazpigarren eta azken liburuan ere bada eskuzko zati bat, eta ez txarrena Duhaturen erranetan. Dena den gehienak *Eskualduna* astelehen agertu ziren. Zaldubizalearen ustez, Senpereko elizgizon zena «beti bezain langile, artista eta idazle ona da euskaraz eta frantsesez».

Zaldubik Azkueri igorri zion gutuna irakurri, agertzen da euskararen akademia baten beharra biziki argi zuela jadanik 1894an. Sarako idazleen biltzarrean eskaini zuen hitzaldi hunkigarrian, Hen-



UTZITAKO ARGAZKIA

Kalakan taldea ETBko bisitariarekin

Kalakan hirukotea, eta beraz Jamixel Bereau herritarra *Bisitaria* ETBko saioan agertu dira berriki Xabier Euzkitzerekin. Senperen grabatu zen emankizuna berriz ikusi nahi duenak klik bat aski du egitea www.eitb.com atariko *Nahieran* sailean. Kalakan hirukotea diska berria grabatzen ari da egun hauetan eta bira hasi du Miarritzen eta Donostian apirilko lehen asteburuan. Orain herriz herri ibiltzen dira Jamixel Bereau, Xan Errotabehera eta Thierry Biscarry. Kontzertuak eskainiko dituzte Gatican (apirilak 21), Biarnoan Laas herriko musika jaialdian eta Hazparnen maiatzaren 9 eta 18an.

ri Duhauk eskerrak eman zizkien laguntzaila guzietan eta bereziki

Gratien Adema-Zaldubiri, «holako lekukotatzen paregabea utzirik».

benta berri
Bentako gure - BETA - Herrikoa - benta-berri@herrikoa.com

ERRESERBAK
948 630 708

Benta Berrin gure gastronomia, menu goxoak eta arrain freskoan espezializatutako karta dastatu dezakezue

DESCONTUA
Bono hau erakutsita %10eko DESCONTUA (menu berezietan izan ezik)

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla - Tel: 948 450 862

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

SARA

KULTURA → 18:30EAN HASIKO DIRA KONTZERTUAK

Usopop festibalak laugarren edizioa beteko du maiatzaren 4an

Agorreka gazteluan eta Lur Berri gelan egingen da

Joana GUERENDIAIN

Uso pop festibalaren 4.edizioa maiatzaren 4an egingen da saran. Festibala horrek garrantzia ematen die lekuei, aurten berritasuna da bi lekutan egingen dela: Agorreka gazteluan (gaztetxearen ondoan) eta Lur Berri gelan. Musikaren ekletismoak egin du festibala honen arrakasta, beti ere euskararen sustapena hari gorria izanki. Kontzertuak 6:30ean hasiko dira Agorrekan, han Una-

ma folk laukotea, Kide Rock bikotea entzuten ahalko dira baita Tipul eta Putil antzerkilariak ere. Bi guneen arteko lotura Beasaingo Jazpina festibaleko kideek egingen dute. Gaueko 9etan Bigottek (pop-calypto-freak) Lur Berri gela animatuko du, ondoren Wilhelm and the dancing-ek (indie-rock) segida hartuko du. Gaua bukatzeko Vandapalium dj-ak gela berotuko du Rock Afrobeat eta elektronika musikak nahasiz. Sartzeak: 5 euro Agorrekan, 8 euro Lur Berrin, 10 euroko sartze orokor bat erosteko aukera izanen da ere. Bertan jateko posibilitatea ere.



UTZITAKO ARGAZKIA
Unama folk laukoteak Agorrekan eskainiko du emanaldia.

Entre deux pluies ikusgarria

Apirilaren 21ean, igande goizeko 11 etan, Lur Berri gelan "AK entrpots"-k bere azken kreazioa aurkeztuko du, dantza eta eskulanak nahasiz. Helduentzat sartzea 8 eurotan izanen da eta 18 urtez beheitikoentzat 5 euro. Erreserbatzeko posibilitatea bada Hego Euskal Herriko telefonora deituz: 06.35.16.25.91.

Ibilaldia

Apirilaren 24an, asteazkena, ibilaldi bat an-

tolatua da Larrun gaindi, 7 fagora igotzeko aukerarekin. Helburua da izadi berezia ikustea: pottokak eta zendako ez saiak. Ibilaldia plazaatik abaiatuko da goizeko 9etan, 10 euro helduentzat eta 5 euro haurrentzat, bada ere 25 euroko pass bat familiarientzat.

Ezkongai loreak

Maiatzaren 1 ean Sarako plazan San Josepe eskolako burasoek ezkongai lore (mugeta) salmenta bat antolatzen dute, goizeko 8 etatik goiti.

Kirol emaitzak

Sarako izarrako basurdeak beren txapelketen final erdietara iritsi dira. Erreserbak galdu egin du Kanboren kontra 3-17. Lehenak Pu-yoo-ren kontra aritu dira, lehen matxa galdu egin dute etxean 8-13 eta itzultze matxa ere 12-9, beraz sasoina hortan gelditzen da.

Sarako Urtxintxak martxoaren 23 an etxean aritu dira Gan-eko taldearen kontra eta irabazi egin dute 17-14. Apirilaren 27 ean Barzunen aritu dira eta galdu egin dute 21-15.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA

948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERA (SAN JOSE) | LESAKA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -



EZKONTZAK

Ez dago datu berrik.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Mikel Belarra Zubieta Doneztebekoa, martxoaren 7an.
Malen Iparragirre Oteiza, Elizondokoa, martxoaren 20an.
Ibai Zunzarren Mariezkurrena, Doneztebekoa, martxoaren 22an.
Liher Isasi Zabaleta Iturengoa, martxoaren 31n.
Maiana Irazoki Hamel, Sarakoa, apirilaren 3an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Maria Joaquina Alduntzin Zabaleta, Leitzakoa, martxoaren 15ean, 84 urte.
Francisca Gamboa Aldabe, Sunbillakoa, martxoaren 19an, 97 urte.
Maria Luisa Etxeberria Irisarri, Berakoa, martxoaren 21ean, 93 urte.
Lorenzo Oteiza Maisterrena, Irurita-koa, martxoaren 24an 84 urte.
Jabier Perurena Caballero, Leitzakoa, martxoaren 25ean 40 urte.
Jesusa Iriarte Garate, Almandozkoa, martxoaren 28an, 88 urte.
Irene Hualde Iriarte, Elizondokoa, martxoaren 26an, 73 urte.
Francisco Balda Telletxea, Ezkurra-koa, martxoaren 29an, 84 urte.
Maria Lizarreta Sanzberro, Elgorriagakoa, martxoaren 30ean, 87 urte.
Maria Angela Urrutia Ariztia, Oronoz-koa, martxoaren 30ean, 89 urte.
Evaristo Arretxea Goñi, Sunbillako, martxoaren 31n, 62 urte.
Juan Oiaregi Gisu, Aurtizkoa, apirilaren 5ean, 84 urte.
Maria Bertiz Iparragirre, Sunbillakoa, apirilaren 4an, 92 urte.
Irene Sagaseta Sagaseta, Beintza-Labaiengoa, apirilaren 4an, 80 urte.
Maria Pilar Mindegia Monako, Berakoa, apirilaren 6an, 87 urte.
Alejandro Telletxea Elizondo, Igan-tzikoa, apirilaren 6an, 96 urte.



Begoña GOMEZ CANALES
AMATXI
 Beran, 2013ko martxoaren 8an

Egun gogor hauetam gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin duzuen guziei, mila esker.

BOTXOKO FAMILIA



M^a Angeles Ganboa Mitxelorena
 Beran, 2010eko apirilaren 25ean
Carmen Alzuguren Agirre
 Beran, 2011ko apirilaren 3an

Umorez eta alaitsu egoten ginen elkarrekin, eta oroitzapen ahaztezin horiek beti geldituko dira gurekin.

ZUEN FAMILIA

Beraien urteurreneko meza maiatzaren 5an egingen da, Berako Elizan, 10:00etan.



Jose M^a BALEZTENA MONACO
 Leitza, 2009ko apirilaren 29an
IV. URTEURRENA

Badira jada lau urte joan zinela gure artetik Baina eguna joan eta eguna etorri zure irudia dugu buruan sarturik zaila da egunero aurrera egitea eduki gabe begian malkorik jakin ezazu denak gaudela zurekin ezin ahazturik.

LASTERKETAK → MAIATZAREN 11N EGINEN DA, SALBATORE BESTEN LARUNBATEAN

Urdazubiko Kontrabandisten lasterketan izen emateko epea zabalik

15,8 kilometro egin beharko dituzte

TTIPI-TTAPA

Aurten ere 15,83 kilometro egin beharko dituzte Urdazubiko Kontrabandisten lasterketan parte hartzen duten lasterkariak: 10,2 kilometro bidexkatan barna, 2,4 kilometro lurrezko bidetatik eta 3,2 kilometro errepidean.

Herriko besten barne, maiatzaren 11n egingen den mendi lasterketa plazatik abiatuko da, 10:00etan. Errepidean goiti eginez, Elixondoko bordarantz (250 metro) bidexka hartu beharko dute; hemendik Azkarko lepora igo (411 metro) eta Argangoita mendiaren atzetik Axular etxera



UTZITAKO ARGAZKIA

Joan den urteko partehartzaileak, ateratzeko prest.

jautsiko dira. Iribere auzoari itzulia emanez, tarteko helmugara ailegatu dira, Irigoiena aterpean (100 metro). Fraileen iturritik iragan ondotik, Elorgako bordaraino (390 metro) igo dira Otsondottiki mendiari itzulia emanez

eta ondotik berriz plazara bueltatu dira Gai nekola bordan barna.

Ibilbidearen gehiengoa malda 326 metrokoa izanen da eta denera 656 metro igo beharko dituzte partehartzaileak. Sei kontrol puntu izanen ditu eta hiru horni-

dura puntu. Ibilbideko punturik altuena 411 metroan egonen da eta ttikiena 84 metroan, irteera eta helmuga puntuan, hain zuzen.

Emakumezko nahiz gizonezkoen artean hiru lehenbizikoentzat sariak izanen dira: lehen-

dabizikoak 250 euro eskuratuko ditu; bigarrenak 150 euro eta hirugarrenak 50 euro. Tarteko helmuga 7,8 kilometroan kokatu dute eta hemen Irigoiena hostalak emanen du saria, bi lagunendako asteburu bat doan. Urdazubiko lehenbiziko bi korrikariak ere saria izanen dute, kafetera bana.

IZEN-EMATEA

Izena emateko epea apirilaren 1ean ireki eta maiatzaren 8an akituko da eta web orri bidez bakarrik egiten ahalko da: www.urdazubikontrabandistas.ueuo.com. Erregistroa egiterakoan 10 euro ordaindu beharko dira. Dortsalak, berriaz, lasterketaren egunean 08:30etik 09:45era bitartean banatuko dira.

HERRI KIROLA → APOSTUA DONEZTEBEN

Olasagasti menperatu dute Patxi Etxeberriak eta Oihan Larretxeak

Minutu eta 48 segundoko aldea atea zion bikoteak Igeldokoari

TTIPI-TTAAQA

Erronka berezia jokatzen martxoaren 24an Doneztebeko pilotalekuan; aizkolari bat biren kontrako apustua. Oihan Larretxea eta Fe-

lix Etxeberriak osatutako bikotea batetik, Jo xemari Olasagasti bertetik. 3.000 euro jokoan. Harmailtan 800 ikusle, handia zen ikusmina eta aizkolariak ez zuten huts egin, Azkeanean, eskualdeko bikoteak lortu zuen garaipena, minutu eta 48 segundoko aldea aterata.

Hogei kana-erdiko ebaki zituzten. Olasagastik bakarka eta bi-



ARGAZKIA: ONDIKOL

800 lagun baino gehiago bildu zen Doneztebeko frontoian martxoaren 24ko apustuan.

koteak bosna enborreko txandak eginez. Lehia estua bizi izan zen. Etxeberriak eskarmen-tua erakutsi zuen eta berek zabaldu zuen tartea.

Oihan Larretxeak apustuaren bigarren zatian izan zuen gorakadarekin ezinezkoa izan zuen Olasagastik buelta ematea. Lanak 51:28

minutuan akituta bikotea atera zen garaile. Olasagastik berriz, 53:17 minutu behar izan zituen hogei kanaerdi-koak mozteko.

PILOTA → ABUZTUAREN 3AN JOKATUKO DA FINALA DONEZTEBEKO PLAZAN

Hamaika talde hasi dira Baztan-Errekako 34. Laxoa txapelketan

Doneztebek 5 talde plazaratu ditu, Iruritak 3, Arraiozek 2 eta Oizek bakarra

TTIPI-TTAPA

Martxoaren azken asteburuan abiatu zen Baztan-Errekako Laxoa txapelketaren hogeita hamalagarren edizioa. Hamaika talde ari dira aurtengoan, 5 Doneztebekoak, 3 Iruritakoak, 2 Arraiozkoak eta Oizkoak. Finala abuztuaren 3an jokatu da Doneztebeko plazan.

Bi multzotan banatu da ariko dira taldeak. A multzoan bortz talde izanen dira: **Doneztebe A** (Pascual Bertiz, Koldo Legarra, Javier Bertiz



ARGAZKIA: ONDIKOL

Aurten ere irudi ikusgarriak uzten ari da laxoa txapelketa.

eta Jokin Arraztoa), **Irurita C** (Joxe Mari Salaburu, Karlos Goikoetxea, Egoitz Prim eta Patxi Orbegozo), **Arraioz A** (Iñaki Mihura, Jon Gamio, Asier Zubigarai eta Jesus Mari

Laurnagarai), **Doneztebe D** (Unai Sapuppo, Xabier Ibarrola, Jose Mari Gartziarena eta Joseba Grazenea) eta **Doneztebe C** (Lander Erkizia, Josu Juanena, Bittor Mendiburu eta Fer-

min Jorajuria).

B multzoan, berriz, sei talde ariko dira: **Irurita A** (Joseba Urtasun, Guillermo Etxenike, Jesus Etxenike eta Jagoba Ramos), **Arraioz B** (Mikel Mindegia, Xabier

Mihura, Aritz Alunda eta Miguel Maritorea), **Doneztebe B** (Asier Mutuberria, Javier Almandoz, Jokin Apezetxea eta Juan Telletxea), **Doneztebe E** (Ramontxo Etxebeste, Jon Apeztegia, Aritz Baleztena eta Joseba Juanena), **Oiz** (Iker Bereau, Lander Mendiola, Ugutz Zelaieta eta Iñaki Mendiola) eta **Irurita B** (Xabi Barberena, Oskar Urrutia, Iñaki Etxandi eta Miguel Bidegain).

Multzo bakoitzeko lau lehenbizikoek final laurdenak jokatu dituzte ekainaren 23 eta 30ean eta uztailearen 7an; irabazleek finalaurrekoak jokatu dituzte uztailearen 14, 21 eta 28an eta finala Doneztebeko plazan jokatu da abuztuaren 3an.

PILOTA → GORKA URTASUN IZANEN DA MONITORE

Erremonte eskola lanean hasiko da Elizondon

Heldu den ikasturtean abiatuko da

TTIPI-TTAPA

Elizondon Baztango erremonte eskola berria martxan jartzearen asmoa azaldu zuten martxoaren 26an Arizkunean egindako agerraldian. Gorka Urtasun Iruritako erremontelaria izanen da monitorea eta heldu den ikasturtean,

irailetik aitzinera hasteko asmoa dute. Baztango Udalak eta Euskal Jai Berri erremonte fundazioak lortutako akordioaren arabera, Elizondoko Baztan pilotalekuan emanen dituzte klaseak.

Txapeldunen arteko desafioren aurkezpenean eman zuten berria. Desafio honetan, Urriaren kontra galdu eginez Urtasunek martxoaren 31n Elizondon.



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES

Matxin III eta Etxeberria III.ak irabazi dute Sagardoaren txapelketa

Sasoiko daude Matxin III eta, batez ere, Joxe Etxeberria doneztebarra eta apirilaren 6an, nagusitasunez irabazi zuten Sagardoaren txapelketa. Galarretako finalean 40-33 irabazi zieten Juaristi eta Agirrezabalari. Etxeberria izan zen partidako onena. Joxe Etxeberriak bi hilabete daramazki sasoi ederrean eta denbora horretan partida bakarra galdu du, tantu bakarrarengatik gainera. Otsailean eta martxoan Oriamendiko koadroko erremontelari onena izendatu dute.

apirilak 18 - maiatzak 2

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58**Kontzertuak**

BERA | 2013.04.20

Ruper Ordorika euskal kulturaren zirkuituan

Topaguneak antolatutako Bat-biral4u euskal kulturaren Nafarroako zirkuituaren baitan kontzertua eskainiko du Ruper Ordorikak Kultur Etxean.

Ospakizunak

BAIGORRI | 2013.04.28

Nafarroaren Eguna borobilduko du Kulturaldia

Hilabete osoan Basaizea Kultur Elkartek antolatu dituen ekitaldiak bururatzeko Nafarroaren Eguna ospatuko da apirilako azken igandean.

Ospakizunak

LESAKA | 2013.04.21

Tantirudantza jaialdiak hainbat dantzari bilduko ditu

Tantirumairu euskal folklore taldeko neska-mutikoekin batera, Tolosako Udaberri, Getariko Gure Txeru eta Dulantziko Haize taldekoak ariko dira.

kara Bortzirietan gogoeta prozesuaren lehen saioa egingen da Toki Ona institutuan, 10:00etatik 14:00etara guztientzat irekia.

IRURITA

Guraso Eskola

Apirilaren 24an Guraso Eskolako eskaintzaren baitan, Nahia Psikoterapia Zentroaren saioa 17:00etatik aitzinera Gizarte Bilgunean.

Ipuin kontalariak

BERA

Irripuinak**Marikalanbreekin**

Apirilaren 26an Marikalanbreekin *Irripuinak* 18:00etan liburutegian, 3-8 urte artekoek zuzendua.

Bertsoak

BERA

Bertso afaria Agerran

Apirilaren 27an bertso-afaria antolatu du Agerra Mendi Taldeak, Andoni Egaña eta Beñat Gaztelumendirekin. Afarria 21:00etan.

Ospakizunak

IRURITA

Lore Jokoak

Apirilaren 21ean egun osoko ekitaldiak antolatu dituzte Dorrea elkarteak, Baztandarren Biltzarra eta Baztango Kultura Batzordeak. Xehetasunak 36. orrian.

BAIGORRI

Nafarroaren Eguna

Apirilaren 28an antolatu du Basaizea elkarteak, hilabete osoko Kulturaldiari bukaera emateko. Egun osoan animazioa izanen da Baigorriin. Informazio gehiago: www.basaizea.com

Erakusketak

IRURITA

Lore Jokoak erakusketak

Apirilaren 8tik 22ra 1879. urteko Elizondoko Lore Jokoetan irabazle izan zirenen poemak, Lore Jokoen afitxak... ikusgai Irurita Jauregian.

OIZ

Iciar Mikelperizenaren lanak Martiornian

Iciar Mikelperizenaren lanak ikusgai daude Martiornia landa etxean. Sarrera libre eta doan. Tel.: 639 508688 (Rakel).

Kontzertuak

ORNOZ-MUGAIRI

Abesbatzen emanaldia

Apirilaren 20an Elizondoko koro tikiak, Agoitzeko San Migel txiki eta Elizondoko abesbatzak emanaldia eskainiko dute elizan 18:30ean.

BERA

Ruper Ordorikaren kontzertua

Apirilaren 20an Bat-biral4u Euskal Kulturaren Nafarroako Zir-

kuituaren baitan Ruper Ordorikaren kontzertua antolatu du Topaguneak, Berako Kultur Batzordearen laguntzaz 22:00etan Kultur Etxean. Sarrera: 8 euro.

Solasaldiak

ELIZONDO

Krisiari herritik buelta emanez (II)

Apirilaren 18an Otxandioko herri-olagarapen lokaleko esperientzia eskainiko du Santi Uribe Otxan-

dioko alkateak eta *Aramaioko Baserri Barri, nekazaritza, turismoa eta kultura* Ramon Ajuria Aramaioko alkateak, 19:30ean Arizkunenean. Sozio-ekonomia Herri Bilguneak antolatua.

BERA

Irache kontsumitzaile elkarteak

Apirilaren 18an Argindarra, gasa eta telefonoa: konpainiak, kontrato motak eta fakturak solasaldia eskainiko dute Iracheko

teknikariek 18:00etan Beralandetan. Antolatzailea: Arkupeak.

BERA

Mikel Tabernaren liburuaren aurkezpena

Apirilaren 25ean Mikel Tabernak *Alkasoroko Benta* bere azken liburua aurkeztuko du 18:00etan liburutegian.

BERA

Euskara Bortzirietan gogoeta prozesua**Apirilaren 20an Eus-**

PROPOSAMENA

IRURITA

Euskal Lore Jokoak ekitaldiz gainezka

1879an Hego Euskal Herriko lehenbiziko Lore Jokoak Elizondon egin zirela gogoan izanik, apirilaren 21ean egun osoko besta prestatu dute Iruritan: laxoa partida eta erakusketak, euskal dantzak, 1879ko olerki sarituen eta 2013ko literatura lehiaketako irabazleen errezitaldia eta arratsaldean, Andoni Egaña eta Uxue Alberdi bertsoariaren saioa.



BERA

Bera kantari

Apirilaren 27an eginen dute itzulia, 19:00etan Illekuetatik abiatuta.

Kantu zahar afaria

Apirilaren 26an kantu zahar afaria egingen da Ibardingo Mendiko jabetxean, 20:30ean hasita. Patxi Vilari omenaldia egingen zaio. Sustrai Colina eta Aitor Mendiluze bertsolariak, Frantzisko Santxotena akordeolaria eta Alberto Zunzarren, Aitor Ibarra eta Patxi Marizkurrena kantariak ariko dira.

IGANTZI

Udaberriko bestak

Apirilaren 28tik maiatzaren 1era antolatu dituzte Udaberriko bestak. Xehetasunak 23. orrian.

LESAKA

Tantirurantz jaialdia

Apirilaren 21ean antolatu du Tantirumairu Euskal Folklore Taldeak. Xehetasunak 20. orrian.

Nafarroako akordeolarien eguna

Apirilaren 21ean ospatuko da Lesakan. Xehetasunak 20. orrian.

SENPERE

Presoen aldeko eguna

Apirilaren 2an ospatuko da Oxtikenian. Eguerdian bazkaria eta atsaldetan kontzertuak: Joxe Replay, Ekintza eta Enbata.

Zinema

DONEZTEBE

Zine emanaldia

Apirilaren 28an *Piratas* filma ikusgai 16:30ean eta *Mal*

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Timuti jirafa

BEGONA IBARROLA

Itzul.: **M. AGUR MEABE**

Marrazki.: **VIVI ESCRIBA**

Elkar, 2013

Timuti jirafak lagun gutxi zuen sabanan, burutik behera begiratzen zuelako denei eta mespretxuz tratatzen zituelako. Animaliak Timutirengandik aparte ibiltzen ziren, berari ez entzutearren. Timutik burula egiten zien, harik eta egun batean...

Begoña Ibarrola bilbotarra da jaiotzez, gaur egun Madrilen bizi da. Psikologian lizentziatua, lan handia egindakoa da haur eta nerabeekin eta ildo berari jarraituz idatzi ditu haurrentzako liburu ugari gazteleraz. Elkar argitaletxeko *Sentipuinak* bildumako aleak dira euskarara itzulitako bere lehenengo liburuak, Miren Agur Meabe idazlearen eskutik. Emozioak sentitzeko ipuin bilduma hauen baitan, gaitzespenari buruzko ipuin bat da *Timuti jirafa*, 6 urtetik goitiko irakurleei zuzendua.

Musika



Ur ederra kirats infinituan

BIZARDUNAK

Baga-Biga Musika Ideiak, 2012

Bizardunak taldea 2009an sortu zuten Iruñean. Talde zabala bezain jendetsua. Bizardunak taldeak egiten duen musikaren ezaugarria bidezidor berberetik joan da hasieratik. Folk rockarekin nahastuta. Taldearen hirugarren diskoaren izenburuak (Ur ederra kirats infinituan) adierazten du taldeak zer nolako jarrera duen. Bizardunak taldea ez da eufemismoaren aldekoa. Uraren gardentasunak ez du erran nahi zabor kopurua beheiti etorri denik; beraz, oraindik kiratsak etenik gabekoa izaten segituko du. Bizardunak taldeak bi gitarrajotzailer berri sartu ditu bigarren diskoaren ondotik, eta ikuspegi rockzaleagoa izan du orduetik, folk zeltiar musikari rock&rollaren ukitu berezia erantsi dio. Sustraiak dituen folkaren doinuak 60ko eta 70eko hamarkadetan egiten zen rockarekin gurutzatu ditu. Folk musika progresiboa zeltiar kutsuarekin nahastuta eta sasoi zaharreko rocka; egun, The Pogues eta Young gaztea batuko bagenitu bezala.

Internet



Elikadura burujabetza lantzeko webgunea

BASERRIBIZIA.INFO

Www.baserribizia.info egunkari digitala, EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)-Bizkaia nekazal sindikatuaren proiektu komunikatiboaren atal nagusi eta estrategiko bat da. Baserritarrei zuzendua dago, hauek informatu eta formatzeko asmoz; komertzio hurbilean, nekazaritza sozialean zein kontsumo arduratsuan interesa duten herritarrei ere zuzendua badago. Herrien elikadura burujabetzaren aldeko inizatiben eskura jarri nahi den tresna da. Portada, Euskal Herria, Mundua, Ekonomia, Ingurumena, Kontsumoa eta Formakuntza atalak begiratu daitezke eta bakoitzaren baitan, Informazioak, Ekimenak eta Mobilizazioak. Hau idazterakoan, Food First erakundeko Eric Holt-ekin egindako elkarriketa ageri zen azalean.

ejemplo 18:30ean zinemana.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleak

Apirilaren 21ean Lantz-Letzeak-Urrabia-Angos-Letxontegi-Gorostion-Hirumugeta-Algorrieta-Lantz ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleek, Baztango XX Mendi Itzuliaren zatia. **Apirilaren 28an** Nafarroaren Egunera ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleek: Erratzu-Iñarbil-Elorta-Trenpetat-Urrizpilotat-Baigorri (08:00).

ZUGARRAMURDI

Atxuria mendi taldea

Apirilaren 28an Lesaka-Arantza ateraldia egingen du Atxuria mendi taldeak.

GOIZUETA

Umore Onaren irteera

Apirilaren 28an *Goi-zueta ezagutuz* laugaurren mendi irteera egingen da Umore Onarekin: Plaza-Labeko borda-Petanxelaia - Etxolla -Txakurtxoko borda-Kaleko borda eta herria. (09:00).

ETXALAR

Etxalarko I. Mendi Itzulia

Apirilaren 21ean Etxalarko I. Mendi Itzulia antolatu du AItxatak. Bi ibilbide aukeran, bat 24 km.koa eta bertzea 35ekoa.

ARKUPEAK

Uitziko gainetik Ireber-era

Apirilaren 25en Uitziko gaina-Ireber ibilaldia egingen du Arkupeak elkarteko mendi taldeak (09:00). Bazkaria Lekunberrin.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONOZ-MUGAIRI. Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milio pezeta/100.000 euro. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

BERA. Pisua salgai Berako herriko plazatik hurbil. 3 logela, 2 bainugela, balkoia, terraza eta trastelekuarekin. ☎653 018955.

ERATSUN. Hiru borda salgai, lur eremuarekin. Interesa dutenek dei dezatela ☎943 217817 telefonora.

ELIZONDO. Balda karrikako (Paularena) 3. zenbakian etxebizitza salgai. Eraikitako azalera 67 m², azalera erabilgarria 59,41 m². Bi logela, sukalde, egongela, komuna, balkoia eta trastelekua ditu. Mobleztatua, igogailua eta berogailuarekin. Mauricio Berekoetxea karrikan 18,75 m²ko aparkalekuko plaza barne. Prezioa: 120.000 euro. ☎652 518471/☎948 452083.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

LESACA. Bittiri kalean 90 m²ko pisua errentan ematen da. Sukalde handia, egongela, 3 logela, komuna, trastelekua eta bi balkoi eder ditu. Bizitzera sartzeko prestatua dago. ☎636 11602/☎639 855284.

LESACA. 110 m²ko pisua errentan emateko edo salgai. Etxe osoak kanpora ematen du eta bi balkoi eder ditu. 3 logela, egongela, sukalde, komuna eta trasteleku handia. Mobleztatua eta berogailuarekin. ☎670 319380/☎607 769519.

BERA. Herri erdian pisua errentan ematen da. Hiru logela, sukalde, 2 komun eta egongela ditu. Dena ekipatua eta bizitzeko prest. Igogailua eta berogailua ere baditu. Balkoi ederra eta eguzkitsua. ☎679 760510.

DONEZTEBE. Zazpigerutze karrikan 110 m²ko pisua errentan ematen da. Sukalde eta egongela mobleztatuta ditu. 3 logela, 1 mobleztatuta, 2 bainugela, berogailua eta igogailuarekin. ☎615 756282.

BERA. Pisu mobleztatua errentan ematen da. ☎697 322391.

IRUÑEA. 2013-2014 ikasturterako pisu bat errentan ematen da. Unibertsitate publikotik hurbil. 4 lagunentzako tokia. ☎662 376520.

DONEZTEBE. Pisua errentan ematen da, mobleztatua eta berogailuarekin. 3 logela, sukalde, komuna, egongela eta bi balkoi ederrekin. Parkina bertan. ☎650 978230.

MUGAIRI. Apartamentu mobleztatua, berogailua eta igogailuarekin errentan emateko. Logela, sukalde-egongela,

bainugela eta trastelekua ditu. Hilabetean 260 euro. ☎663 312557.

LEITZA. Pisua errentan ematen da herri erdian, igogailu eta guzti duena. ☎650 191983.

LESACA. Apartamentu berria errentan ematen da hirigunean, udaletxe aurrean. Sukalde, sala, komuna eta gela handia ditu. Garajea nahi izan ezker, aukeran. Prezioa 300 euro. ☎636 255141.

SUNBILLA. Herri erdian etxea errentan ematen da. Lau logela eta baritze ederrarekin. Mobleztatua. ☎948 450729.

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

ESKUALDEA. Emakumezko batek etxebizitza edo pisu bat errentan hartu nahiko luke Bortziriak, Baztan edo Malerreka inguruan. ☎647 233690.

LOKALAK/GARAJEAK

errentan emateko

LESACA. Bajera komer-tziala errentan ematen da Iturrubikoko plazan. ☎948 637862/☎678 855056.

ALKAIAGA auzoan, 70 m²ko lokala errentan ematen da. Prezio interesgarria. ☎649 161830.

LANA

eskariak

DONEZTEBE. Emakume euskalduna lanaldi osoan eskaintzen da, etxeko lanak, ostaluetan edo den-detan lan egiteko. ☎626 981768.

Emakumezkoa interna moduan eskaintzen da Bortziriak, Malerreka, Baztan, Urdazubi edo Zugarramurdi lan egiteko. ☎602 473794.

Autonomoa eskaintzen da **eletrizista** lanak (partikular edo enpresentzat) egiteko. Prezio onean. ☎629 534928.

ELIZONDO, BAZTAN. Emakumezkoa eskaintzen da ordutegian lan egiteko. Harrikoa, plantxa, garbiketala lanak, pertsonak zaintzen... ☎603 640776.

Adineko jendea zaintzeko esperientzia duen gizonetzkoa eskaintzen da. Berehala lanean hasteko moduan. ☎631 418014.

Emakumea eskaintzen da **adineko jendea pa-seatzera** ateratzen lan egiteko. ☎649 621603.

ARIZKUN. Arkitekturako ikasle bat naiz, eta aste-buruetan lehen hezkun-

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(Martxoaren 29tik apirilaren 05era bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 56 € (-1,00)

Zerri gizena
1,377 € kiloak.

Zerramak:
0,870€ Kg/bizirik.

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,13

1.koa 3,87

2.koa 3,71

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,34

1.koa 4,06

2.koa 3,92

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttiakiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 132,00

idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:

urruxak 155,00 (+25,00

idixkoak 195,00 (+30,00)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,70/5,80

8-10 kilokoak: 4,60/5,30

tza, DBH eta batxilergo mailako **klase partikularrak** emateko prest nago. ☎680 187344.

Neska euskalduna, **erizaintzako laguntzaile** tituluarekin eta esperientzia handiarekin ospitale, zahar etxe edo etxetan lan egiteko eskaintzen da. ☎620 956648.

Gizonezkoa eskaintzen da **kamioi gidari** internazional eta nazional bezala aritzeko. Esperientziaduna. Interesatuak deitu ☎634 679659.

ANIMALIAK salerosketak

Border Collie zakurkumeak salgai. Aita eta ama hagitz onak, lanean erakutsi daitezke. ☎678 896909.



Basurde ehizarako txakur emea salgai, hamar hilabetekoa. ☎686 635304.



Aharia salgai. ☎948 510314.



Tekel arrazako zakur emea salgai, bederatzihilabetekoa. ☎686 635304.



ANIMALIAK oparitzeko

3 hilabeteko **artzai txakurkumea** oparitzen da. ☎690 906004.

BERAKOUDALA

OSOKO BILKURAREN AKORDIOA
- HIRIGINTZA -

Udaleko Osoko Bilkuraren akordioa, 2013ko martxoaren 19koa: Udal Plan Orokorra-ren aldaketa egituratzailea, 4. eta 5. Sektorrean eta ondoko lur-zatietan (Bidasoa Karrika), hasiera batez onestea.

Espediente hau jendeurrean izanen da hilabete batez, dagokion iragarkia NAOn argitara ematen denetik.

Bera, 2013.04.05
ALKATEA,
M^a Sol M. Taberna Iratzoki

Leitzan hilabeteko **2 txakurkume** oparitzen dira. Ama ardi zakurra eta aita labrador arrazakoa. ☎948 510224.

MOTORRAK salgai

Aisan markako **autoa** salgai. Egoera onean. Prezioa 2000 euro. ☎690 050903.



Nissan Almera Tino 1.8 monobolumena salgai. 5 atekoa. Gasolina. 2005 urtekoa. 65.000 km. Arrasongi zaindua. ☎628 572273.

ZERBITZUAK denetarik

Ordenagailu, telefono mugikor edo argazki kamera digitala hondaturik? Ez bota. **Bildu** eta posible bada **konponduko** ditut. Interesa dutenek ☎616 295420ra deitu edo idatzi dezatela ebilketa@gmail.com helbidera.

DENETARIK salerosketak

Balay markako **frigorifiko** salgai, 2011ko apirilean erositakoa. Soilik frigorifikoa da, ez dauka kongeladorerik. Hagitz egoera onean dago. Prezioa: 300 euro. ☎679 332358.

ORONOZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta harritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. ☎659 867287/ ☎699 461394.

Eskuz egindako **piketeak** salgai 2,5 euro unitate bakoitza. Egur mota alkazia da. Piketeak eramateko garai ordaindu behar dira. ☎948 610943.

DENETARIK galdu/aurkituak

Lesakako igerilekuan **bi lepoko** galdu dira. Nahastuta beste norbaiten nezeserreen sartu dira.

AVIA GASOLINDEGIA

DESCONTUAK

CLUB AVIA txartelarekin:
%2 gasolio eta gasolinan
%5 dendako produktuetan

Udaberri honetan, igo **Club AVIA**ra
Sartu eta eramán bizikleta tolesgarri hau

GANIX

948 63 06 69

ROSA BELUÑEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua
☎ 948 272011 (RUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urutia 42-2.D - ELIZONDO

ARANTZA
Zurgindegia.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Jose Miguel Izardona
Mó. 948 631 046 - 647 810 144
Gertitxeta - ARANTZA

apirileko zk. saritua
5.429

Bi lagunendako bazkaria

Sarituen hilaren 30a baino lehen deitu behar du Bostzrietako Hiri Hondakinen Mankomunitatera

948 63 52 54

AURREZTU BULEGOKO materialean

TXARTELAK
Kartulina berezia 400gr. + 2 alde koloretan + BEza barne

50094€
bisita txartel


100 txartel **74€** 250 txartel **90€**
1000 txartel **116€**

Keskantako bidea 7, 1 | LESAKA | 948 435 458
www.ttipi.net | www.kulturkari.com | kulturkari@tipi.net

urtebetetzeak

Argazki soil: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,37€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txeketa; 4) www.ttipi.net bitartez



Zugarramurdiko **MAIALEN ETXABE OLHAGARAYK** 9 urte bete ditu martxoaren 26an. Zorionak familia guztiaren partetik.



ANARTZ EZKURRA SANZ sunbildarrik 3 urte beteko ditu apirilaren 9an, Zorionak!!! gure pailazoari, Leitzako familiaren partez, muxu haundi bat



ANARTZ EZKURRA SANZ eta **OMAR IRAZOKI EZKURRAK** urteak beteko dituzte apirilaren 9 eta 27an Zorionak Sunbillako familiaren partetik eta bereziki Ekhi eta Aihelenen partez.



Zorionak Doneztebeko **NAHIA BELARRA MARIEZKURRENARI** martxoaren 26an 2 urte bete ditu eta. Muxu handi bat Ezkurra eta Doneztebeko familiaren partez eta bereziki Oier eta Enaitzen partez. Prestatu berendu goxoa



Arantzako **BENAT AZPIROZ ERRANDONEAK** 5 urte bete ditu apirilaren 16an. Zorionak! muxu asko aita, ama, Irati eta famili guztiaren partez gizontxo!



Zorionak **MADDALEN!** Etortzen zarenean txokolatetzko tarta erraldoi batekin ospatuko dugu! Mila muxu zure lehengusu Ekhi eta Lukaren partez!



Doneztebeko **ANDER RETEGUI AZPIROZEK** 3 urte beteko ditu apirilaren 21n. Zorionak eta muxuak aita, ama, Mattin eta familiaren partetik. Ongi pasa!



Zorionak **BENAT** eta **ANDER** lehen-gusuei! 5 eta 3 urte betetzen dituzte apirilaren. Ongi pasa zuen urtebetetze egunean, amonia eta ataubixiren partetik muxu pottolo batekin.




Goizuetako **OIER MIRANDAK** 10 urte bete ditu apirilaren 12an. Zorionak Iker, atta eta amaren partez eta Aupa erreala!!!




Berako **GARAZI ARBURUA ZELAIETAK** bost urte bete ditu apirilaren 2an. Beranduegi bada ere, aunitz urtez eta muxu haundi bat moñoña, aita-ama, Unax, Haizea, Maider eta familia guztiaren partetik.



XUBAN TABERNAK 7 urte bete ditu apirilaren 10ean, aunitz urtez familia guztiaren partetik eta ongi pasa eguna. Zorionak tximino!



Sunbillako **EGOI IRIGOYENEK** 7 urte beteko ditu apirilaren 19an, zorionak famili guztiaren partez eta bereziki zure arreba Marenen partetik. Berendu goxoa prestatu.



ANDER PAGOLAK 4 urte bete ditu, aunitz urtez potoko familiaren eta bereziki Jon, Asier eta Naroaren partetik. Zorionak eta ongi pasatu! Muxu haundi bat.



Zarauzko **NIKO** eta **MAREK OLIVER LABORRAK** apirilaren 13an urte bat bete dute. Zorionak Iruritako familiaren partetik eta bereziki Saioaren partetik! Muxu aunitz!



Sunbillako **MARIA LUISA GAMBOAK** urteak bete ditu apirilaren 13an. Zorionak Amatxi!!! Egun eder bat pasa dezazun familiko guziekin prestatu berendu goxo goxoa!!!



YUE ZABALETA GARTZIAK, gure etxeko printzesak 2 urte bete ditu apirilaren 16ean. Zorionak eta muxu haundi haundi bat, etxeko guztien partetik eta bereziki zure anaia Unaxen partetik.



Doneztebeko **JOANES JUANOTENAK** maiatzaren 1ean 4 urte beteko ditu eta **MAIALEN JUANOTENAK** berriz maiatzaren 3an urtea. Zorionak atta eta amaren partez! Berendu goxoa prestatu eta ongi pasa eguna!!



Zubietako **NAROA SANTESEBAN OTXANDORENAK** urteak bete ditu apirilaren 15ean, aunitz urtez eta muxu handi handiak familiaren partez, bereziki Garazi, Uxue, Iker eta Ekaitzen partez. Bide batez, aunitz aunitz urtez ere gure osabari.



IRATI LAZKANOTEGI MATXIARENAK urteak bete ditu. Zorionak sorgina! Txokolatada noizko??? Ongi pasa eta muxu haundi bat etxeko-koen partez!



ANEK eta **SARAK** urtea beteko dute apirilaren 18an. Zorionak eta urte askoz attatto, amatxu, Lekitxoko eta Berako familiaren partetik. Maitxiak, asko maite zaituztegu.




Sunbillako **SARA** eta **IMANOLEK** 2 eta 27 urte beteko dituzte. Aunitz urtez eta ongi ongi pasa zuen urtebetetze eguna familia guztiaren partetik baina bereziki Sara izeba eta neskalagunaren partez. Muxuak



Saldiasoko **JOSEBA ZESTAU UGALDEK** 2 urte beteko ditu apirilaren 10ean. Zorionak eta muxu handi handia familia guztiaren partez!




Etxalarko **ALAIN DANBORIENA PADILLAK** urtea bete du apirilaren 10ean. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partez!



Oronozko **LIERNI OTEIZA MIGELTORENAK** urteak bete ditu apirilaren 13an. Zorionak Berroeta eta Oronozko familiaren partez, bereziki Enekoen partez. Osaba Migueltxok egun berean beteko ditu urteak, bion arten prestatu tarta goxoa!



Sunbillako **OSABA JOKINEK** eta **AMATXI MARIKRUZEK** urteak beteko dituzte. Aunitz urtez familia guztiaren partetik baina bereziki zuekin argazkian agertzen diren 3 sorgintxo hoiaren partez. Ongi ospatuko dugu zuen urtebetetze eguna. Muxuk



DANIELA CALVO ARANZADIK apirilaren 26an 6 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat ama, aita, Niko eta Mugerdikoko guztiaren partetik.



JONE ORUBEK, etxeko printzesak 3 urte bete ditu apirilaren 17an. Zorionak eta bi muxu Maialen eta Irati ahizpen eta familia guztiaren partez.



hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa

www.ttipi.net

argazki soilak 4 €
argazki bikoitzak 8 €

aldizkarian interneten

ttipi txartela

PIU INARTEA ISARTZA
70670333-0
948 635 457
123456

**ttipi txartelarekin
beti irabazten da !**

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRIUK

-%25eko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

eskatu zurea 948 63 54 58
telefonoan

informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Kuzkoantako bidea 7, 31770 LESAKA
Tel: 948 635 458 | Fax: 948 635 457
info@ttipi.net | www.ttipi.net

deSKONTUAK

DATUCELAY

ELIZONDO SEPT
%10 bateria eta amortiguadoretan

Marka Cruz
LANTZARIA

DONEZTEBE | ELIZONDO
%10, 30etik gorako gastuan

kukuka
KUKUKA

DONEZTEBE
%10 piana eta barioko arropetan

EZ Zaldia
ZALDIA

DONEZTEBE | ELIZONDO
%10 produktuetan

POSADA OITZ

OIZ
%10eko deskontua

intzuri OPTIKA

LESAKA
%10 produktu gutxietan

zozketak

587. ALEKO IRABAZLEAK

- 1- KAMISETA BAT | Oninart
Patri Arbunua | IGANTZI
- 2- NAPOKA IRIA CDa | Bomberenea
Consuelo Irarte | BERA
- 3- AQUARIUM 2 SARRERA
Itziar Arbunua | ZUGARRAMURDI
- 4- 2 LIBURU | Tarttalo argitaletxea
Xabier Angulo | BERA
- 5- 2 LIBURU | Ekar argitaletxea
Joxelu Loarte | BERA
- 6- GALTZAGORRI liburua - TXIRRITA CDa | Lanku
Angela Insant | ETXALAR

KAMISETA BAT

Onddo ta punto

www.onddotapunto.com



MARTIKO LOTEA

www.martiko.com



2 SARRERA

Sorginen lezea



2 LIBURU

Tarttalo

www.tarttalo.com



2 SARRERA

Lesakako Udal kiroldegia

www.urdist.com



2 SARRERA

Aquarium

www.aquariumsa.com



BAT BIRAL:4U

EUSKAL
KULTURAREN
NAFARROAKO
ZIRKUITUA
2013

RUPER ORDORIKA

Apirilak 20
22:00
Berako
Kultur Etxea



LINGUA NABAJORUM

Maiatzak 24
22:00
Etxarri Aranazko
Kultur Etxea



POTTOLA

Maiatzak 4
20:00
Agoitzeko
Kultur Etxea



Antolatzailea



topagunea
euskara elkarteen
federazioa

Babesle Nagusia



Babesleak



TOKIKOM

berria

Noticias

Loguntzaileak

guaixe.net

euskalerriairratia

ttipi-ttapa

BELE&XE

